

KAMIOIENTZAKO AT BIDESARI SISTEMA BERRIA HAUSNARKETA KRITIKOA

GRADU AMAIERAKO LANA
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA
(GIPUZKOAKO ATALA)

Ikaslea: Ander Loidi Etxeberria
Zuzendaria: Erlantz Allur Aranburu

2018-2019 IKASTURTEA

Aldez aurretik, eskerrak eman...

*...Nire gurasoei, momentu oro izan
baitira niri laguntzeko prest.*

*...Erlantz Allur-i, gradu amaierako
lan hau burutzen laguntzeagatik.*

*...Gaizka Lasa-ri, beharrezko zenbait
informazio eskura jartzeagatik.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1.1. Laburpena	8
1.2. Helburuak.....	10
1.3. Metodologia.....	11
1.4. Deskribapen orokorra	13

2. ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-SISTEMAK EUROPAR BATASUNEAN

2.1. Deskribapena	16
2.2. Garraio-politikak	19
2.3. Europako legezko esparrua	21
2.4. Errepideen finantzazioa.....	23
2.4.1. Tarifakazioa.....	23
2.4.2. Kobru-sistemak	26
2.4.3. Herrialde ezberdinen kasuen azterketa.....	27
2.4.4. Espainiako kasua eta berezitasunak	35

3. GIPIZKOAKO ERREPIDEEN ERREALITATEA

3.1. Sarrera	37
3.2. Bide Azpiegiturak	38
3.3. Bidegi	40

4. LANDA-LANA

4.1. AT Sistema	43
4.1.1. Zer da	43
4.1.2. Funtzionamendua	44
4.1.3. Erabiltzailea.....	45
4.1.4. Sistemaren kokapen geografikoa	46
4.1.5. Tasak eta ordainketa metodoa.....	46
4.1.6. Portikoen ezaugarriak	47
4.2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bertsioa	48
4.3. Garraiolarien bertsioa	52
4.4. Ibilbide judiziala eta Foru Arau berria	55
4.5. Bilakaera	60
4.6. Hausnarketa pertsonala	63

5. ONDORIOAK

5.1. Etorkizunerako beste aplikazio eremu batzuk	65
5.2. Lanaren ekarpenak.....	66
5.3. Lanean zehar izandako zailtasunak	67

6. BIBLIOGRAFIA

6.1. Liburu eta aldizkariak	69
6.2. Web orrialdeak.....	71
6.3. Zuzentarauak	72
6.4. Eranskinak.....	73

ADIERAZPEN GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. **GRAFIKOA:** *Errepide bidezko nazioarteko garraioaren bilakaera ibilgailu astunei dagokienean Europako hainbat herrialdeetan*

TAULEN AURKIBIDEA

1. **TAULA:** *Errepide bidezko garraioaren fiskalitatea Europan*

2. **TAULA:** *Europako errepide sarea populazioaren arabera*

3. **TAULA:** *Tarifikazio modulatuako sistema*

4. **TAULA:** *Jarduera ildoen aurrerapen maila*

5. **TAULA:** *Departamentuaren osaketa*

6. **TAULA:** *Kanon-tarifak*

7. **TAULA:** *Kanon-tarifa berriak*

8. **TAULA:** *AT sistemaren bilakaera*

ARGAZKIEN AURKIBIDEA

1. **IRUDIA:** *Errepideen mapa*

2. **IRUDIA:** *Euskadiko errepideen erakunde eskumendunak*

3. **IRUDIA:** *Arkuen banaketa geografikoa*

4. **IRUDIA:** *Foru Arau berriaren aldaketak*

1. SARRERA

1.1. LABURPENA

AT Sistema Gipuzkoako Foru Aldundiak N-1eko eta A-15eko azpiegiturak mantentzeko gastuei aurre egiteko emandako irtenbide aitzindaria da. Gaitasun handiko bi errepide horiek egunero zeharkatzen dituzten salgaien garraiorako ibilgailuen artean kostu hori ordaintzeko, Europako 2011/76/CE Zuzentarauari erreferentzia egiten dio.

Sistema adimendun berritzaile honen bidez, ibilgailuak arkitik pasatzen direnean, eta gelditu beharrik edo abiadura jaitsi beharrik izan gabe, salgaien garraiorako 3,5 tonatik gorako ibilgailuak detektatzen eta sailkatzen dira, eta bidesaria kobratzen zaie VIA-T gailuaren bidez edo matrikula irakurrita.

Gradu Amaierako Lan honetan, ekimen berritzaile honen jatorria ikertu eta justifikazio teorikoa egiteaz gain, garraiolarien artean izan duen harrera, eta etorkizun hurbilera ekarriko dituen emaitzak aztertuko dira. Horretarako, elkarrizketa erdi-bideratuak, eta informazio bilketarako galdetegi bat osatu eta pasatzea aurreikusten da.

Lortutako ondorioak erabakitzaile publiko eta pribatuen intereserako izango dira, eta hurrengo urtetarako gidalerro estrategikoak finkatzeko balioko dute.

RESUMEN

El Sistema AT es la pionera solución impulsada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para el reparto del coste de mantenimiento de las infraestructuras de la N-1 y la A-15. El conjunto de vehículos de transporte de mercancías que atraviesan diariamente estas dos vías de gran capacidad costeará los gastos, haciendo referencia a la Directiva Europea 2011/76/CE.

Mediante este novedoso sistema inteligente, al pasar por los pódicos y sin necesidad de parar o reducir la velocidad, se detecta, clasifica y se procede al cobro del vehículo de transporte de mercancías de más de 3,5 toneladas, bien por el dispositivo VIA-T compatible que lleva a bordo o por la lectura de la matrícula.

En este Trabajo de Fin de Grado, aparte de analizar el origen y desarrollar la justificación teórica de esta innovadora iniciativa, se investigarán el grado de aceptación que ha tenido entre los transportistas y los resultados que se esperan obtener en un futuro cercano. Para ello, se prevén realizar entrevistas semi-estructuradas y completar un cuestionario para recopilar información necesaria.

Las conclusiones obtenidas serán del interés de órganos públicos y privados de toma de decisiones y ayudarán a establecer las bases estratégicas para los próximos años.

ABSTRACT

The AT System is a pioneering solution given by the Provincial Government of Gipuzkoa to the maintenance costs of the infrastructures of the roads N-1 and A-15. The AT System, which follows the European directive 2011/76/CE, is intended to charge the vast amount of good transporting vehicles that drive through those roads every day, in order to pay for the costs.

By means of this revolutionary intelligent system, when vehicles get through the arch, without stopping or reducing their speed, vehicles which transport goods and are heavier than 3,5 tonnes are detected and classified and they are charged the toll by reading their number plate or their VIA-T.

In this end-of-degree project, apart from, exposing the origins and the theoretical justification of this groundbreaking initiative, the transporters' reception and the results in the near future will be analysed. For that purpose, the use of semi-structured interviews, and questioners for gathering of information has been foreseen.

The conclusions reached will be in favour of the interests of public and private decision-taking bodies and will establish the strategic guidelines for the coming years.

1.2. HELBURUAK

Azken lau urte hauetan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan jasotako jakinduria eta ezagutzak modu erreal eta praktikoago batean erabili nahi izan ditut lan hau burutzean. Lan honetan, errepide bidezko garraio-sistemak hartu ditut oinarritzat, Euskal Herriko kasurako aplikazio moduan. Lanaren asmoa, kamioien AT bidesari sistema berriari buruzko hausnarketa kritiko bat garatzea da. Beraz, nire ikasketen bitartez ikasitakoa ikerketa-lan honetan zentratuko dut.

Normala denez, Gradu Amaierako Lana egitearena esperientzia berri bat da ikasle guztientzat, orain arte inoiz egin dugun lanik handiena eta garrantzitsuena baita. Nire kasuan, lanaren gaia aukeratzeko garaian, hasiera batean pixka bat galdua ibili nintzen, ez bainekien nondik nora jo, zein adarretan zentratu. Oraindik ere lan hau urrun ikusten banuen ere, berehala heldu zitzaidan gaia aukeratzeko garaia. Sarritan gertatzen den moduan, proiektua egiteko unea heltzen denean oraindik ez da ziur jakiten zein den alorrik gustukoena, eta esan dezaket, niri ere antzeko zerbait gertatu zaidala.

Polonian nengoen laugarren kurtsoko lehenengo lauhilekoa burutzen, Erasmus programaren barruan. Bertatik bueltatzerako lanaren gaia aukeratu izan nahi nuen, eta gabonetan Euskal Herrira egindako bisita baliatu nuen horretarako. Gaia aukeratu aurretik konfidantzazko irakasle bat hautatzea pentsatu nuen, aurretik pare bat lagunek gomendatu zidatena. Hortaz, Erlantz Allur irakaslearekin jarri nintzen harremanetan. Berarekin bildu eta nire gaitasun eta gustu pertsonalak azaldu ostean, nire ezaugarrietara ondoen egokitzen zen gaiaren bila hasi ginen. Hasiera batetik, argi neukan ez nuela gai teorikorik eta zaharkiturik nahi, nire gustuak gehiago egokitzen baitira gai praktikoetara. Hortaz, errealitatearekin zerikusia zuten gai berritzaile eta egungoak bilatzeari ekin genion.

Bizpahiru gai proposatu zizkidan, baina zalantzarik gabe, gai hau izan zen hasiera batetik interes eta jakinmin gehien piztu zidana. Bere iritziz ere, gai hau zen mahai gainean genituenen artean interesgarriena, eta bertatik oso lan polita atera zitekeela ikusarazi zidan. Esan beharra dago, Gipuzkoako kasuaren eta zehazki esanda, AT sistemaren berri eman zidanean ez nuela ideiarik ere honen inguruan, ez nuen gai honen berri. Informatzen hasi eta berehala konturatu nintzen pil-pilean zegoen arazoa zela, eta oso lan polita atera zitekeela bertatik. Gainera, lanaren muina gertukoa eta egunerokotasunean entzuten dena izanik, interesa piztu zitzaidan eta gai hau hautatzera bultzatu ninduen.

Egia da, Euskal Herriko Unibertsitatean orain arte ez dela inoiz honelako gairik jorratu, eta hasiera batetik izan nitzakeen zailtasun gehigarrien jakitun nintzen. Hala ere, era honetako gai bat jorratzeari ikusten dizkiodan abantailak edo alderdi positiboak, zailtasunak baino askoz gehiago dira. Lan berritzaile eta berri bat egitea oso aberasgarria iruditzen zait, orain arte inoiz ez egite horrek nire motibazioa areagotzen baitu emaitza txukun bat lortzeko bidean.

Lan honen helburu generiko edo orokorren artean, graduan zehar jasotako ezagutza teoriko eta praktikoak nik hautatutako kasu erreal batean aplikatzen ikastea da nire

nahia. Horrez gain, helburu espezifikoei edo kasuari lotutakoei erreparatuz, administrazio publikoak martxan jarritako ekimen baten analisi kritikoa egiteko gaitasunak lantzea eta bitartekoak bilatzea izango da nire egitekoa.

Lan hau burutu ostean, nire helburu edo nahietako bat hemen bildutako informazioaren azterketei eta hausnarketei erabilera ematea eta etorkizunerako baliagarria izatea da. Gizartean, orokorrean, ezjakintasun handia dagoela sumatzen da gai honen inguruan, baita zuzenean eragiten dion sektorearen artean ere. Horrez gain, oso gutxi idatzi da, orokorrean, garraio-sistemei eta tarifakazioari buruz gure hizkuntzan. Beraz, nire nahia, bi bide horientzat ekarpen bat egitea da, batetik gizartearentzat eta bestetik, euskararentzat.

1.3. METODOLOGIA

Jakinik nire Gradu Amaierako Lana ikerketa bat dela, lan hau burutu ahal izateko metodologia oinarritzat hartuta, bi zati uztartzen direla esan genezake: lehen zatian, errepide bidezko garraio-sistemen inguruan hitz egiten da, Europar Batasunaren barnean. Zati hau teorikoa denez, gai hauen inguruko bibliografiara jo behar izan dut. Bigarren zatian, aldiz, Gipuzkoaren kasuaren azterketan zentratu naiz erabat, AT sisteman hain zuzen. Zati hau praktikoagoa denez, informazioaren bila kalera ateratzea da nire asmoa, gaur egun bolo-bolo dabilen gaia baita.

Lehen zatiko atalak ia bere osotasunean teorikoak direnez, informazio-iturriak bilatu beharrean izan naiz. Unibertsitateak eskainitako mintegiak asko lagundu dit horretan, honelako lan batean informazioa bilatzeko zein prozedura jarraitu behar diren jakiteko. Gainera, informazio-iturriak zititzen eta iturri horiek bibliografia atalean modu egokian txertatzen ere irakatsi didate, hori guztia orain arte berria baitzen graduako ikasleontzat. Modu horretan, informazio gehiena sarean aurkitu dut, aldizkari edota artikulu ofizialetan gehienbat. Esan beharra dago, ez zaidala erraza egin nik nahi izandako informazio zehatza bilatzea, gaia oso zabala baita bere osotasunean, eta hasiera batean lortutako informazioa ulertzeko eta mugak jartzeko arazoak eduki ditut.

Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle ohia den Helena Franco Ibarzabalen doktoretza tesiak ere zenbait zentzutan lagundu dit. "Garraio-azpiegiturako politikak eta lurralde-eredua. Euskal Herriko kasurako aplikazioa" deitzen den liburua, garraio-politiken atala osatzeko balio izan dit, baina liburu honen ekarpena hortaz haratago joan dela esango nuke. Nahiz eta informazio-iturri honetatik ez dudan eduki asko barneratu nire lanean, etorkizun batean irakurtzeko liburu oso interesgarria iruditu zait. Azken finean, nire gaiaren inguruko ezagutza zabaltzeko nahiaren bidean, interes eta jakinmin handia sorrarazi didan liburua izan dela esango nuke.

Errepide bidezko garraio-sistemen barnean, zati handi bat Europar Batasuneko zenbait herrialderen esperientziak ikertzen igaro dut. Atal hau burutzeko sarean bilatu ditudan bi artikulutan oinarritu naiz nagusiki, herrialde bakoitzaren kasua modu argi eta ordenatuan azaltzen baitzuten. Bi artikulua horietako informazioa uztartuz, nire azterketa

propioa osatzea lortu dut. Gehigarri gisa osatu ditudan tauletarako, aldiz, informazioa zenbait web orrialderen bidez eskuratua izan da. Informazio-iturri hauen datuak metodologia atalean aipatu ez arren, lanaren azken atalean aipatuko dira, bibliografia atalean hain zuzen.

Bigarren zatia praktikoagoa denez, informazio gehiena nire kabuz lortzea izan da nire asmoa. Atalaren hasieran, landa-lana izango denaren aurrerapen moduko bat egiten da. Gipuzkoako errepideen errealitatea aztertzerakoan, Bide Azpiegituren Departamentua eta Bidegi enpresa aurkeztu ditut. Bi erakunde publiko hauen inguruko bibliografia gehiena sarean bilatu dut, oso modu errazean. Ohikoa da gaur egun, enpresek sarean beraien web orrialdeak izanik, haien berri ematea. Beraz, esan dezaket erakunde hauen inguruko informazioa ofiziala eta lehen eskukoa dela.

Horrez gain, web orrialdeko oinarrizko informazioaz haratago, Bidegiren inguruan gehiago sakondu nahi izan dut. Horretarako, Bidegiren 2018. urteko memoriaren eskaera egin dut web orrialdean bertan. Behin dokumentu hori eskuratuta, nire asmoa lanean Bidegiren inguruko informazio korporatiboa txertatzea da; esaterako, erakundearen aurkezpena, nola antolatuta dagoen, zer ekintza burutzen dituen edota zer konpetentzia dituen. Informazio hori eskuratuta, Gipuzkoako errepideen errealitatea modu sakonagoan aztertu ahal izango nuke, lanaren aztergai nagusia izango dena iritsi aurretik, AT sistemara hain zuzen.

Landa-lanean murgiltzen bagara, AT sistemaren inguruko informazio gehiena nire kabuz lortzea aurreikusten da. Nahiz eta sistemaren azalpen orokorrak eta funtzionamendua Bidegiren web orrialdetik modu errazean lortu ditudan, gainontzeko informazioa kalean eskuratu nahi izan dut. Nire hasierako asmoa, AT sistemaren erabiltzaileak eta sustatzaileak elkarrizketatzea da, aurrez galdera sorta zabal bat prestatuz. Elkarrizketa hauek burutzeak, gatazkaren bi alde interesatuak mahai gainean jartzea eta egoera hobeto ulertzea ahalbidetuko dit, inoren alde edo kontra jarri gabe, nire ondorio propioak atera ahal izateko. Gainera, lana borobiltzeaz eta sakontzeaz gain, proiektuari balio erantsi handia emango liokela iruditzen zait.

Elkarrizketen helburua, alde batetik, martxan jarri den sistemak garraiolarien artean izan duen harrera eta honek beraien jardunean izan ditzakeen ondorioak ezagutzean zentratuko da. Bestetik, elkarrizketetan bigarren aldearen ikuspuntua nire kabuz ezagutzea ere interesgarria iruditzen zait, eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundira jo dut, hau baita ekimen berritzaile honen sustatzailea. Galdetegi honetatik bildu nahi izan dudana informazioa AT sistema martxan jartzearen arrazoiak aztertzean eta sistemaren mugak ezagutzean zentratu da. Era honetan, sistemaren abantailak eta desabantailak ikuspegi kritiko batetik eztabaidatzeko gai izango naizela iruditzen zait.

Landa-lanean erabilitako informazio guztia, ordea, ez da aurreikusten elkarrizketetan eskuratutakoa soilik izango denik. *El Diario Vasco* egunkarian ibilbide guzti honetan zehar argitaratuak izan diren albiste eta artikulu guztiak biltzen joan naiz banan-bana. Informazio bilketa horren helburua, erabiltzaileen eta sustatzaileen artean egitea espero den elkarrizketen ostean, bilakaera moduan, taula kronologiko bat txertatzea da,

aterako ditudan ondorio eta hausnarketa guztien aurretik. Beraz, esan dezaket AT sistemaren informazioa lortzeko bidean, aurretik aipatu dudan egunkaria erreferentzia nagusitzat hartu dudala urte osoan zehar, lanaren hasieratik amaieraraino.

1.4. DESKRIBAPEN OROKORRA

Buruturiko lan hau 6 atal nagusitan banaturik dago: sarrera, Europar Batasuneko errepide bidezko garraio-sistemak, Gipuzkoako errepideen errealitatea, landa-lana, lanaren ondorioak eta bibliografia, hurrenez hurren. Jarraian, atal bakoitzari dagokion deskribapena aurkezten da.

Lehenik eta behin, lanaren sarrera burutu dut. Bertan, jorratuko den gaiaren nondik norakoak eta azalpenak eman ditut. Horrez gain, gai hau hautatzearen arrazoiak eta proiektu honekin lortu nahi diren helburuak zeintzuk diren aipatzen dira. Metodologiaren zatian, aldiz, lan hau egiteko erabili ditudan informazio-iturriez eta zailtasunez gain, proiektua zein norabidetan bideratu dudana azaltzen da.

Jarraian, Europar Batasuneko errepide bidezko garraio-sistemen azterketa burutzen da. Kontutan izanik tarifikazioaren atzean errepide bidezko garraioaren sektorea dagoela, hori izan da lanaren oinarria edo abiapuntua. Atal honekin, gaian barneratu nahi izan dut ikuspegi orokor batetik betiere, errepide bidezko garraio-sistemek gure gizartean duten garrantziaz jabetzeko. Bertan, zenbait atal ezberdin landuko dira, sektorearen ezaugarriak eta azken urteetan izan duen bilakaera, esaterako.

Ondoren, Europar Batasunean azken urteetan jorratu diren garraio-politiketan zentratu naiz, gure herrialdera heldu aurretik, Europan zehar bidai azkar bat eginaz. Atal honetan, zuzenbidearen esparrua ukitzen da, Europako Legezko esparruaren eta bete beharreko Zuzentarauen inguruko azterketa labur bat egiten baita. Horrez gain, politika horien bidez Europako errepideak nola eta zein irizpideren arabera finantzatzen diren aztertuko da.

Atal honen ostean, pixkanaka burutu beharreko aztergaira hurbilduz, errepide bidezko garraioaren tarifikazioa landuko da. Lehen bi ataletan tarifikazioaren kontzeptua eta erabiltzen diren kobru-sistema desberdinak aipatuko dira, modu teoriko batean. Teorian ikusitako hori errealitatean aplikatzeko asmoz, ordea, Europako zenbait herrialderen kasuen ikerketa burutuko da, horietan aplikatu diren tarifikazio motei eta kobru-sistema desberdinei erreparatuz.

Europako egoera ikertu ondoren, koxkatxo bat behera egingo dugu, Batasunetik Estatu mailara jaitsiz. Bertan, Espainiako kasua eta gainontzeko herrialdeekiko dituen berezitasunak aztertuko ditugu, gurera hurbilketa bat eginez.

Nazioaren esparrutik beste maila bat jaitsiz, Autonomia Erkidegora hurbilduko naiz, zehazki esanda, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) barnera, Gipuzkoara. Hau izango da proiektu honen muina eta gure aztergaiaren oinarri edota garatuko dugun landa-lana. Bertan, kasu erreal baten aplikazioan zentratzen naiz erabat.

Lehenik eta behin, Gipuzkoako errepideen gaur egungo errealitatearen inguruko sarrera moduko bat egiten da, gure aztergaia izango denaren kasurako hurbilketa bat, alegia. Honekin batera, AT sistemaren sustatzaileak izan diren erakunde publikoen aurkezpen orokor bat burutzen da, hauen jarduera nagusiak, finantzatzeko moduak eta helburuak ezagutu ahal izateko: alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren barne dagoen Bide Azpiegituren Departamentua izango da aztergai, hau baita Gipuzkoako errepide eta azpiegitura sarearen arduradun eta erantzule nagusia. Bestetik, Bidegi enpresaren azterketa garatu da, non Gipuzkoako errepideen kudeaketaz eta gestioaz arduratzen den.

Gipuzkoaren barnean jarraituz, lan honen atalik garrantzitsuenean zentratu naiz, landa-lanean, hain zuzen. Bertan, AT sistemaren azterketan murgildu naiz modu sakon batean. Sistema berritzaile honi hasiera emateko, AT sistema zer den azaltzeaz gain, sistemaren funtzionamendua, erabiltzaileak eta kokapen geografikoa deskribatu ditut. Gainera, atal honetan barneratu ditut bidesariaren tasak eta ezarritako portikoen ezaugarriak, atal gehigarri edo interes puntu gisa.

Honen ondoren, gatazka honetako bi alde interesatuen bertsioak ezagutzean zentratu naiz. Lehendabizi, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritzia eta ikuspuntua ezagutu dut Bide Azpiegituretako Diputatua den Aintzane Oiarbideren bidez. Jarraian, garraiolarien eskubide eta aldarrikapenak bildu ditut, Hiru sindikatuaren eta zenbait garraiolariren elkarrizketen laguntzaz.

AT sistemarekin jarraituz, 2018. urtean izan duen ibilbide judizialaren eta urte amaieran onartu den foru arau berriaren analisia egin dut. Horren ostean, landa-lan honen atal nagusi gisa, urte osoan zehar *El Diario Vasco* egunkarian biltzen joan naizen albiste guztien laburpen moduko bat egin dut taula kronologiko batean, nire hausnarketa pertsonalarekin batera. Bertan, denborarekin hasierako zenbait planteamendu aldatzera behartu nauen arazoengatik inguruko iritzi sakon bat dago, erakunde publiko eta pribatuek gizartearekiko duten jarreraren eta izateko moduaren inguruan.

Lan guztian zehar ikasitakoa baliatuz, ondorioen atala burutu dut, hiru zatitan banatuz. Lehenik, etorkizunerako beste aplikazio eremu edo proposamen posible batzuk egiten saiatu naiz. Lan honetatik lortu dudak jakinduriatik eta ateratako ondorioetatik abiatuta, gaur egungo egoera hobetzeko egon daitezkeen aukera berriak proposatzen ahalegindu naiz. Honi jarraiki, lanaren bidez zentzu askotan jasotako ekarpenak eta lanean zehar izan ditudan zailtasunak zein izan diren laburbiltzea ere interesgarria iruditu zait.

Proiektu honen muina ikerketa bat izanik, hausnarketa kritiko bat egitea oso garrantzitsua dela iruditzen zait, nahiz eta nire helburua ez den inondik inora alde baten edo bestearen inguruan posizionatzea. Hausnarketa kritiko horrek, bi aldeak hobeto ulertzeko edota enpatia lantzeko aukera emango dit, eta hainbat gauzetan ados egongo naizen moduan, beste hainbatetan aurka azalduko naiz. Laburbilduz, azken atal hau, gehienbat nire iritzia emateko baliatuko dut.

Lan guztiak amaitu ohi diren moduan, hau ere bibliografiarekin bukatuko da. Bertan, informazioa eskuratzeko erabili ditudan informazio-iturriak zeintzuk diren adieraziko

dira. Informazioa iturri ezberdin askotatik kontsultatua izango da, esaterako, liburu, prentsa, aldizkari, artikulua, Internet etab. Atal gehigarri gisa, erabilitako prentsa artikuluen bilduma moduko bat egongo da lanaren amaieran, eranskinak atalean.

2. ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-SISTEMAK EUROPAR BATASUNEAN

2.1. DESKRIBAPENA

Gaur egun, errepide bidezko garraioa da garraio biderik erabiliena mundu osoan zehar. Garraioari dagozkion azpiegiturretan aurrera eman diren inbertsioek eta ibilgailuetan jorratu diren aurrerapen teknologikoen bide eman diote horretarako. Esan dezakegu, errepidea dela pertsonen nahiz merkantzien garraiorako garraio bide nagusia (Álvarez eta Pardo, 2008).

Errepide bidezko garraioak beste garraio-sistemekiko (trena, hegazkina, itsasontzia) abantaila nabarmena du, hauek iristen ez diren lekuetara iristeko gaitasuna eta malgutasuna baitu. Horrez gain, ordutegiekin eta errepide sareekin dituen egokitzapenei esker, errepide bidezko garraioak ez du lehiakiderik, ez epe laburreko, ez epe luzeko distantzian. Kamioia garraiatu beharreko merkantziak kargatu bezain laster irten daiteke bere abiapuntutik, eta errepidean zehar edozein arazo izanez gero, bide bat baino gehiago hartu ditzake bere helmugara ahalik eta azkarren heldu ahal izateko (Martínez, 2013).

Garraioa edozein gizarteren jarduerarako behar beharrezkoa da, ezinbesteko bilakatu baita herritarren artean, garapen ekonomiko nahiz sozialerako. Garraioari dagozkion azpiegiturak herrialde ezberdinetako politika ekonomikoetan berebiziko garrantzia izan dute (Álvarez eta Pardo, 2008).

Errepide bidezko garraio-sistemen garrantziaz ohartzeko, Estatuaren barneko ikuspegi indibidualetik haratago, nazioarteko ikuspegi batetik behatu behar dugu egoera. Sektore honen izaera ekonomikoa bi bidetan justifikatu dezakegu. Alde batetik, intrintsekoki, sektore honek enplegu arrazoietan eta arrazoi produktiboetan duen garrantziaz ohartuz. Bestetik, inguruko beste sektoreen gainean duen eraginari erreparatuz, esaterako, produkzio kostuetan edota harreman komertzialetan duen garrantzia.

Hortaz, Europar Batasunaren garraio-politiken helburu nagusietako bat Estatu kideen artean, ondasun, zerbitzu, kapital eta pertsonen zirkulazio librea lortzea izanik, ezinbestekoa da errepide bidezko garraio-sistema eraginkor bat edukitzea. Hori ezean, ezinezkoa suertatuko litzateke horren aplikazio egokia (Arroyo, 2008).

Hala ere, errepide bidezko garraioak ekarpen positiboek gain, eragin negatibo ugari ditu. Erantzukizun zuzena du ingurumenarekiko inpaktu negatiboan; esaterako, kutsadura atmosferikoan, zaratan, istripuetan, biodibertsitate galeran, kongestioan edota energiarekiko menpekotasunean (Álvarez eta Pardo, 2008).

Espainiaren kasua aztertzen hasita, INE-ren datuei erreparatuz, ikus dezakegu garraioaren sektorean lanean diharduten langileen %80 baino gehiago errepidean ari direla. Martínez-en (2013) aburuz, errepide bidezko merkantzien garraioaren sektoreak zenbait ezaugarri nagusi ditu:


Sektore honetan enpresa asko daude, enpresa txiki eta ertainak nagusitzen direlarik. Horrek, sarritan, antolakuntza arazoak ekartzen ditu sektorean, zaila delako enpresaburu txiki eta handien artean adostasunak ematea. Batzuetan, lankidetzak akordioak sinatzen dira, eta modu horretan, enpresek kostuak murriztu ahal dituzte, langile finkoak autonomoengatik ordezkaturik, hau da, kostu finkoak kostu aldakor bihurtuz.

Gainera, atez ateko zerbitzu bat eskaintzen du, erabiltzailearen beharretara egokitzen dena. Horrez gain, teknologian ematen diren aldaketetara egokitzeko gaitasuna du. Azken ezaugarri gisa, esan dezakegu sektore honetako langileen ohiko perfila 35-55 urteko gizonetako autonomoak izan ohi direla.

Bestalde, garraioak izan duen bilakaerari dagokionez, Europan azken 40 urteetan izan den garraio biderik erabiliena errepide bidezko garraioa izan da. Trenbide bidezko garraioaren gutxikuntzak bide eman dio errepide bidezkoari eta horren ondorioz, hazkunde ikaragarria jasan du azken hamarkadetan.

Jarraian txertatutako grafikoan, errepide bidezko nazioarteko garraioak herrialde ezberdinetan izan duen bilakaera ikus dezakegu. Grafiko honek, zehazki, ibilgailu astunen garraioak azken urteetan izan duen eboluzioa erakusten digu, ibilgailu mota hori baita merkantzien garraioan diharduena.

1. GRAFIKOA: Errepide bidezko nazioarteko garraioaren bilakaera ibilgailu astunei dagokienez Europan hainbat herrialdetan



ITURRIA: Egileak moldaturikoa, Martinez-etik (2013)

Datuak milioika tonatan

Martínez-ek (2013) aipatzen duen moduan, hainbat arrazoi izan dira errepide bidezko garraioaren hazkundeari bide eman diotenak. Zenbait puntu garrantzitsu aipa ditzakegu: batetik, errepideak malgutasun eta irisgarritasun handiagoa du beste garraiobideekin alderatzen badugu, erraztasun handiagoa baitu helmuga ezberdinetara heltzeko. Errepide bidezko garraioaren lehiakide nagusia trenbide bidezko garraioa da, errepide sarea trenbide sarea baino 10 aldiz handiagoa izanik. Gainera, errepide bidezko garraioaren sektorean enpresa asko aurkitzen dira, gehienak izaera pribatukoak. Trenaren sektorean, aldiz, enpresa gutxi daude eta normalean izaera publikoa izan ohi dute.

Bestetik, Espainiako errepide sarea zuzenean Europakoarekin elkartuta dago, eta atez ateko zerbitzua eskaintzeko, errepidea da kostu eta oztopo gutxien ekartzen dituen. Kamioiek, esaterako, beren izaeragatik, merkatuaren beharren aldaketetara hobetoago eta azkarrago moldatzeko joera izan ohi dute. Atez ateko zerbitzuen beharrak eta eskarian izan diren aldaketek ohikoagoa egin dute kamioiek karga gutxiagorekin bidaia gehiago egitea. Malgutasun handiagoa eta zerbitzu azkarragoa eskatzen zaie gaur egun.

Aurretik aipatu bezala, Espainiako errepide sarea oso zabala da, eta Europako herrialdeen joerari jarraituz, asko hazi da azken 40 urteetan. 80ko hamarkadatik hona, Europako diru-laguntzen bidez, azpiegituren arloan zeuden ahuleziak konpontzen saiatu da Espainia, bere BPG-ren %2 inguru azpiegitura eta hobekuntzara bideratuz.

Urte askoan zehar, errepide bidezkoa izan da garraiorako sektore nagusia, batez ere, aldaketetara egokitzeko dituen baldintzei esker. Hala ere, gaur egun errepide bidezko garraio sektorearen etorkizuna zalantzan aurkitzen da. Europar Batasunak zenbait arau eta lege aplikatu ditu errepideko kongestioa eta kostu sozialak gutxitzeko asmotan. Helburu nagusia, errepide bidezko garraioa baino eragingarriagoak eta garbiagoak diren beste garraiobide batzuk aurkitzea eta horietara aldatzea da.

2008tik 2009. urtera, esaterako, jaitsiera nabarmena egon zen merkantzien garraioan, hein handi batean, Espainiak jasandako krisi ekonomikoaren ondorioz. Hala ere, Europako arau eta legee jarraituz, etorkizunean jaitsiera horri jarraipena ematea dute helburu (Martínez, 2013).

2.2. GARRAIO-POLITIKAK

Atal hau osatze aldera, gehienbat, Europar Batzordeak 2014. urtean eginiko ikerketa batean oinarritu gara. Europar Batasunak hainbat esparru politikotan aurrera eramaten dituen jardueren artean, garraioa hartuko dugu ardatz nagusitzat. Horretarako, garraio-politiken azterketan zentratuko gara.

Garraioa gizartearentzat eta ekonomiarentzat berebiziko garrantzia duen sektorea da. Europar Batasuneko ekonomiari egiten dion ekarpen handiaz gain, 11 milioi lanpostutik gora sortzen ditu Europan. Europar Batzordeak dituen helburuen artean garrantzitsuenetakoa, garraio-politika eraginkor, ziur eta iraunkor bat garatzea eta sustatzea da.

1993. urtean argitaratu zen “Enpleguari buruzko Liburu Zuria” izenez ezagutzen den txostena, bertan argi ikus daitekeelarik Batasunaren jarrera nagusia. Garraio-azpiegituren alorrean duen politika azaltzeaz gain, azpiegiturek garapen ekonomikoan joka dezaketen funtzioaren inguruan egiten den hausnarketa aurki dezakegu.

Liburu Zurian Batzordeak hazkundera, lehiakortasuna eta enplegua suspertzeko neurrien artean, Sare Transeuroparraren ezarpena bizkortzea proposatzen du, aldi berean zenbait lehentasunezko proiektutan zentratuz. Sare horien beharra justifikatzerako orduan, bi dira erabiltzen dituzten argudio nagusiak: bata, lehiakortasun handiagoa lortzearekin lotua, eta bestea, merkatu bateratuaren funtzionamendua hobetzearekin (Franco, 2002).

Gure gizartea etengabe mugimenduan doan heinean, pertsonak ere etengabe mugitzen ari gara. Mugikortasun beharrak hazten doazenez, garraioaren etengabeko hazkuntza ematen ari da, bai bidaiaren artean, bai garraiatzen diren merkantzien artean ere. Horrek, ordea, ingurugiroari ez dio inolako mesederik egiten gasen emisioak gutxitzearen bidean.

Oreka bat bilatu nahian, eta konponbideak aurkitze aldera, Europar Batasuneko politikek zenbait erronka finkatuak dituzte. Errepide sareetako azpiegiturei dagokienez, Europar Batasunean oso maila ezberdinekoak ikusten dira, eta horien egoera hobetu nahi da garraio egokiago bat lortzeko bidean. Horrez gain, errepideetako kongestioa jaitsi nahi da, baina datuek diotenez garraioak hazten jarraituko du. Gainera, Europar Batasuneko garraioaren sektoreak lehiakortasun handiagoa izango du, munduko beste herrialde batzuetan ematen ari den hazkunderaren ondorioz.

Erronka horietaz aparte, badira Europar Batasuna kezkatzen duten beste zenbait puntu, petrolioaren menpekotasuna, esaterako. Nahiz eta teknologia berriei esker ibilgailuen eraginkortasuna handitu, garraioak bere beharren %96 asetzeko ezinbestekoa du petrolio. Kontuan izanik geroz eta petrolio kopuru urriagoa izango dugula etorkizunean, alternatiba berrietan zentratzea beharrezkoa da. Adituen esanetan, 2050. urtean petrolioaren prezioa 2005. urtekoarekin alderatuz bikoitza izango da.

Ahaztu behar ez den beste erronketako bat negutegi efektuko gasen emisioen jaitsierarena da. Pasa den mendeko emisio-mailen datuak aztertu ondoren, Europar

Batasuna 2050. urterako sektoreko gasen emisioa %80 jaistera konprometitu da. Helburu hori lortzeko bidean, esan beharrik ez dago, garraiotik eratorritako gasen emisioek eragin handia izango dutela. Europar Batasunaren arabera, negutegi efektuko gasen emisioen laurdena garraiotik dator.

Europar Batasuneko politikari esker, azken 20 urteetan Europako garraio sektorean aurrerapen handiak eman dira. Lortutako helburu nagusien artean hainbat aipa ditzakegu; esaterako, segurtasuna handitu da garraio mota guztien artean (istripu kopurua eta hildako kopurua jaitsiz), sektoreko langileek gaur egun baldintza hobekak dituzte, kutsadura gutxitu da eta aurrerapen teknologiko nabarmenak eman dira garraio garbiago baten alde.

Segurtasunaren puntua aipatzearen, errepide istripuetan hildako pertsonen kopurua nabarmen jaitsi da azken urteetan. 1992-2010 urteen artean, esaterako, hildako pertsonen kopurua erdira jaitsi zen, biktimen kopurua 70.000 izatetik 31.000 izatera pasatuz. 2010-2013 artean, aldiz, %17 jaitsi zen kopuru hori. Bide horretatik jarraituz, Europar Batasunaren helburu nagusienetako bat 2020. urtea baino lehen biktimen kopurua %50era jaitea da.

Europar Batasunak, I+G egitasmoak bultzatzeaz gain, teknologia berrietan zentratzen du arreta, bereziki garraio ekologikoari loturiko teknologian. Arau eta lege berriek batasuna osatzen duten herrialde guztiak teknologia garbiak sustatzera derrigortzen dituzte (ibilgailu elektrikoak edo hidrogenozkoak, adibidez).

Garraio azpiegituren politika berri bat martxan da 2014. urteaz geroztik. Honen helburua, aurretik aipatu bezala, Europako errepide sareetako azpiegiturak bere osotasunean hobetzea da, potentzia handien artean eta gainerako herrialdeen artean ezberdintasun handiak egon ez daitezken. Modu horretan, herrialde batetik besterako ibilbidea erosoagoa izango da, bide batez, garraioaren kalitatea hobetuz. "Europa batu" ("Conectar Europa") deritzon egitasmo honek, 26.000 milioi bideratuko ditu garraiorea, Europako garraio sare nagusia osatzeko asmoz.

2.3. EUROPAKO LEGEZKO ESPARRUA

Europar Batasunaren helburu nagusietako bat, Estatu kideetan zehar, ondasun, zerbitzu, kapital eta pertsonen zirkulazio librea lortzea da. Horretarako, behar beharrezkoa ikusten du merkatu bateratu bat sortzea. Jarraian, garraio-politika bateratuan zentratuko gara.

1957. urtean sinatutako Erromako itunean finkatu ziren helburuen artean, Europar Batasunean garraio-politika bateratua ezartzeko nahia argi geratu zen. Erromako ituna garraio merkatua zabaltzean eta lehiakortasun baldintzen oreka bilatzean oinarritzen da (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

1992. urtean sinatutako Maastrichteko tratatua oso garrantzitsua izan zen Erromako itunean adostutako helburuak sendotzeko. Europako garraio merkatuaren hazkunde eta garapena bilatzen zuten, eta horretarako, Europar Batasuneko herrialde kideen garraio-politikak bateratzea ezinbestekoa zen (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

Horrez gain, Europako garraio-sistemaren efizientzia eta iraunkortasuna bultzatzeko helburuarekin, tarifikazio politikak eta politika fiskalak bateratu nahi ziren (Europar Batzordea, 1998).

90. hamarkadako hasierako urteek berebiziko garrantzia izan zuten aurreko paragrafoan aipatu ditugun helburuei dagokienean. Ibilgailuei dagozkien zerga sistemak aldaketak jasan zituzten, besteak beste, ibilgailu astunei kostuak igoaraziz. Horiek izan ziren erabileragatik ordaindutako tarifikazio modelo bat ezartzearen bidean emandako lehen urratsak (Vassallo eta López, 2009).

1992. urtean Europar Batasunak garraio-politikari buruzko Liburu Zuria argitaratu zuen, "Hazkundera, lehiakortasuna, enplegua" izenburupean, gai horiek izanik jorragai nagusiak. Testuinguru horretan kokatzen dira azpiegituren beharra eta funtzionaltasuna (Franco, 2002).

Bertan aipatzen zenez, garraio-sistemaren efizientzia faltaren arrazoi nagusietako bat ibilgailuen jabeen lan-kostuetan aurkitzen zen. Garraioan ziharduten pertsonen lan-kostuen artean ez zeuden errepideari egindako kalteei zegozkien kostuak, eta hor desoreka nabarmena sortzen zen, garraio-sistemaren kaltetan, noski.

1993. urtean Europar Batasunak 1993/89/CE¹ Zuzentaraua onartu zuen, zeinak merkantzien garraioan erabiltzen ziren ibilgailu mota batzuen gaineko zerga onartu zuen. Horrez gain, zenbait errepide mota eta autopistetan bidesariak ordaintzeko legea onartu zuen.

¹ 1993/89/CE Zuzentaraua: ibilgailu astunei eta errepideei buruzkoa, zergak eta bidesariak erregulatzen dituena.

Beranduago, 1999. urtean, 1999/62/CE² Zuzentaraua onartu zen Europar Batasuneko herrialde kideen artean. Bertan, merkantzien garraioan erabiltzen diren ibilgailu astunek errepide sare jakin batzuk erabiltzeagatik ordaindu beharreko zergen legea onartzen da.

2001. urtean, Gotenburgoko Europako Kontseilua garraio-politika iraunkor baten alde agertu zen, kostu sozialak eta ingurumen kostuak barneratuz. Kontseiluaren helburuen artean, errepide sareetako ibilgailuen kopurua gutxitzea eta zarata eta auto pilaketak murriztea zeuden. Horrez gain, ingurumenaren alde elkarlanean, gasen emisio eta kutsadura mailak kontrolatzea eta garraio bide garbiagoak sustatzea zuten helburu (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

2003. urtean, Europako Parlamentuak, aurretik zetozen urteetarako, eta batez ere hurrengo hamarkadari begira, Eurobineta barneratuko zuen Zuzentarau baten beharraz ohartarazi zuen. 4 urte beranduago, 2006/38/CE³ Zuzentaraua onartu zen, 1999/62/CE Zuzentaraua moldatuko zuena, nahiz eta zenbait Estatu beranduago aplikatuko zituzten bertan hitzartutako tarifakazio sistemak.

Urte batzuk geroago, aldiz, beste behin moldatu zuten 1999/62/CE Zuzentaraua, kasu honetan 2011/76/CE⁴ Zuzentaruaren bidez. Honen oinarria jatorrizko Zuzentaruaren berdina da, hau da, ibilgailu astunen trafikoa “erabileragatik ordaintzearen” filosofia jarraituz erregulatu behar dela dio. Horrez gain, Zuzentaru berri honek ardatz transeuroparretan ibilgailu astunei bidesaria derrigorrez kobratu behar zaiela adierazten du (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

2004/52/CE⁵ Zuzentaruak dioenez, herrialde desberdinek beren azpiegituren eta errepide sareen finantzaziorako ezarri dituzten tarifakaziorako kobru-sistemak ez dira elkarren artean bateragarriak. Hori lortzea da, hain zuzen, Europar Batasunaren helburu nagusietako bat; Estatu ezberdinetako kobru-sistemen artean bateragarritasuna eta elkarreragingarritasuna egotea. Estatu kideen bidesari zerbitzu nazionalen gehigarri gisa sortu da Europako Bidesari Zerbitzua.

Hala ere, Estatu desberdinetan aplikaturiko tarifakazio politika desberdinak errespetatu eta aplikatu beharko ditugu, betiere jakinik, Estatu baten barne ere politika bat baino gehiago egon daitekeela. “Guztiaren gaineratik, Estatu desberdinen arteko herritarren artean, diskriminazio ezaren printzipioa errespetatu beharko da” (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Tarifakaziorako kobru-sistemak ezartzen dituzten Estatu kideek zenbait berezitasun bete beharko dituzte; esaterako, epe motzean abantaila teknologikoen hobekuntzak ezarri beharko dituzte, etorkizunerako aplikazio modelo berriei muzin egin gabe. Sistema horiei dagokienean, aurrerago aztertuko ditugun teknologietako batean oinarrituko

² 1999/62/CE Zuzentaraua: ibilgailu astunei buruzkoa, errepideen erabileragatik ordaindu beharreko zergak erregulatzen dituena.

³ 2006/38/CE Zuzentaraua: Eurobinetari buruzkoa, tarifakazio sistemak erregulatzen dituena.

⁴ 2011/76/CE Zuzentaraua: ibilgailu astunei buruzkoa, ardatz transeuroparretan bidesaria ezartzea derrigortzen duena.

⁵ 2004/52/CE Zuzentaraua: Kobru-sistemen arteko bateragarritasuna eta elkarreragingarritasunari buruzkoa.

dira: satellite bidezkoa (GSNN), mugikor bidezkoa (GSM-GPRS) eta DSRC sistema bidezkoa (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

2.4. ERREPIDEEN FINANTZAZIOA

Azken urteetan, Europako herrialde askotako errepide sareetan tarifikazio modelo eta kobru-sistema berriak jarri dituzte martxan. Honen guztiaren jatorria 90. hamarkada bukaeran sortutako aurrerapen eta garapen teknologikoan koka dezakegu, hori izan baita gaur egungo garraio-sistemari bide eman diona (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

Sistema berri hauen xedea erabileragatik ordaintzea da. Europa erdialdeko Estatuetakoa errepide sareak ibilgailu karga gehien jasotzen dutenak dira, garraiolariak hauetako asko eta asko gurutzatu behar izaten baitituzte beren merkantzien ibilbidean. Hori horrela, bertako errepideetako ibilgailu pilaketa erregulatzeko asmotan, tarifikazio modelo eta kobru-sistema berriak ezarri dituzte (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Estatu horien helburu nagusia, tarifikazio orokor baten bidez beren errepide sareen mantenturako edota azpiegitura berrien eraikuntzarako beharrezko inbertsioa finantzatzea da. Hala ere, Estatu askorentzat sistema hauek martxan jartzearen arrazoia ez da izaten ekonomikoa soilik. Ingurumenarekiko konpromezua eta *road pricing* politikak ezartzea aipa ditzakegu horren adibide (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

2.4.1. TARIFIKAZIOA

Azken urteetan, Europako zenbait herrialderen egoera ekonomikoak okerrera egin du eta horren ondorioz, zenbait arazoak izan dituzte aurrekontuak egiterakoan. Horrela, pixkanaka errepideak finantzatzeko metodo berriak agertzen joan dira eta erabiltzailea errepideen erabileragatik ordaintzeko kontzientzia garatzen joan da. Hori horrela, gaur egungo metodo berriak martxan jarri dituzten herrialdeetan, erabiltzaileak dira errepideei dagozkien kostuak (osoak edo partzialak) ordaintzearen erantzule nagusiak.

Jarraian, Europan errepideen finantzaziorako erabiltzen diren hiru metodo nagusiak aztertuko ditugu: bidesarien ezarpena, errepidea erabiltzeko eskubidea ematen dion bineta baten aplikazioa eta ibilgailu astunentzat tarifikazio modulatuako sistema betearazteko betebeharra (Gómez eta Vassallo, 2013).

- **Modelo tradizionala:**

Modelo honen barne, bi motatako errepideak aurkitzen dira, eta horien finantzazioa aztertuko dugu. Alde batetik, kontzesiopean ez dauden errepideen erabileragatik inongo zergarik edo bidesaririk ordaintzerik eskatzen ez duten herrialdeak daude. Esanguratsuenen artean, Espainia, Frantzia (bi modelo aplikatzen ditu), Italia edota Erresuma Batua aipa ditzakegu, nahiz eta denek ez duten proportzio berean aurrera eramaten modelo hau. Modelo honetan, bidesari gabeko errepide sareen

finantzazioa aurrera eramateko baliabideak, hein handi batean, aurrekontu publikotik eratorriak dira (Vassallo *et al.*, 2012).

Bestalde, kontzesiopean dauden errepideen erabileragatik bidesaria ordaintzea derrigortzen duten herrialdeak aurki ditzakegu. Kontzesioa ematen zaion enpresa izango da errepide sare horren eraikuntzaren eta azpiegituren mantenuaren arduradun nagusia. Kasu gehienetan, enpresa hauek izaera pribatua dute, nahiz eta herrialde batzuetan enpresa publikoak edota mixtoak (publiko-pribatuak) dauden. Bidesaria, azken batean, erabiltzaileak errepide sarearen enpresa titularrari ordaintzen dion zerga-mota da.

Nahiz eta modelo tradizional hau errepideen finantzazioari dagokionean mundu mailan dagoen modelorik ohikoena izan, Europako zenbait herrialdetan pairatu diren krisi ekonomikoen ondorioz arazoak izan dituzte. Hori dela eta, herrialde horietako aurrekontuetan izandako gorabeherak bertako errepide sareen finantzazioa kolokan jarri dute.

Beraz, ekonomia arazoaren ondorioz, argi ikusten da azken urteetan modelo tradizional honen bideragarritasuna zalantzan jarri dela. Honen ondorioz, Europar Batasunak jarraian aztertuko ditugun finantzazio modelo berritzaileagoak jartzen ditu mahai gainean, errepideen kostuak erabiltzaileei egotziz (Gómez eta Vassallo, 2013).

- **Bineta:**

Europako zenbait herrialdek, aurretik aipatu dugun erabileragatik ordaintzearen printzipio hori aplikatuz, errepideen finantzaziorako metodo gisa *bineta* izenekoak erabiltzen dute. Bineta hau kontratatzen edota erosten duen erabiltzaileari errepidea erabiltzeko eskubidea ematen zaio denbora tarte jakin baterako. Estatuak finkatzen dituen bineta prezioen arabera, erabiltzaileak diru kantitate bat ordaintzen du horri dagokion denbora tartean zehar errepide sarearen nahi adinako erabilera egin dezan. Modelo hau ibilgailu guztietan aplikatzen da, hau da, arin nahiz astunetan, ordaindu beharreko prezioa astunetan handiagoa izango delarik.

Normalean, bineta ordaintzearen truke erabiltzaileari bere ibilgailuaren ageriko zati batean itsatsi beharreko txartel bat ematen zaio. Bere epealdia, orokorrean, urtebetekoa da, nahiz eta epealdi txikiagoko txartelak saltzen dituzten, esaterako, zenbait hilabete edo egun. Txartel hauen prezioa, nagusiki, zenbait aldagaiak finkatzen dute: ibilgailu mota eta tamainaz gain, ingurumen aldagaiak ere kontutan hartzen dira.

1993/89/CE⁶ Zuzentaraua kontutan harturik, Europako herrialde batzuen akordioaren ondorioz, errepideen erabilera ordaintzeko bineta bidezko sistema berri bat sortu zen. Europako bineten artean ezagunena den sistema honi

⁶ 1993/89/CE Zuzentaraua: Eurobinetari buruzkoa, errepideen erabilera ordaintzeko bineta erregulatzen duena.

Eurobineta deritzo. Kasu honetan, 12 tonatik gorako pisua duten ibilgailu astunak soilik daude derrigortuta bineta ordaintzera.

Sistema hau, gaur egun, Europako herrialde gutxi batzuetan dago ezarria; Belgika, Herbehereak, Luxenburgo eta Suedian soilik. Eurobinetak ezberdintasun bat du beste sistemekiko, izan ere, sistema bateratu bat osatzen du aplikatzen duten herrialdeen artean (Gómez eta Vassallo, 2013).

- **Tarifikazio modulatu:**

Azkenik, zenbait herrialdetan martxan jarri den ibilgailu astunentzako tarifikazio modulatu sistema aztertuko dugu. Azken urteetan, Europar Batasunean tarifikazio modelo gisa arrakasta izaten ari den eta alternatiba moduan aurkezten den sistema dugu hau. Kasu honetan, ibilgailu astunei soilik ordainarazten zaie errepideen erabileragatik.

Sistema honen helburu bakarra ez da errepide sareen bideragarritasun finantzarioa aurrera eramatea. Horrez gain, Europar Batasuneko garraio-sistemaren barruan berebiziko garrantzia duen sistema da. Bertan aipatzen diren helburuen artean, Europar Batasunak, batetik, errepidearen erabileragatik sortutako kostu sozialak barneratu nahi ditu; horien artean aurkitzen dira azpiegitura kostuak (eraikuntza, mantenua...) eta kanpoko kostuak (kutsadura, zarata, kongestioa...). Bestetik, ingurumenarekiko konpromisoa garatuz, garraiobide garbiagoak bultzatu nahi ditu, adibidez, errepideetatik trenbideetara pasatuz merkantzien garraioa.

Tarifikazio modulatuan, normalean, 3,5 tonatik gorako ibilgailu astunei ordainarazten zaie errepideen erabileragatik. Hala ere, herrialde bakoitzak aukera du tarifikazio sistema hau ibilgailu arinetan aplikatu hala ez. Herrialde gehienek beren muga ibilgailu astunetan jartzearen arrazoia zera da; sistema hau ibilgailu astunetan aplikatzen dute lehendabizi, beranduago ibilgailu mota guztietan aplikatzeko lehenengo urrats gisa.

Bidesariaren tasak finkatzeko orduan, hainbat aldagai hartzen dira kontuan. Abiapuntu bezala, ibilgailuak egindako distantziari erreparatzen zaio, horren arabera prezioa aldatu egingo baita. Horrez gain, ibilgailuak igorritako gasen emisio-mota aztertzen da, araututako mailen arabeko prezioa finkatuz. Gainera, ibilgailu mota eta bere pisua ere tasak finkatzerako orduan kontutan hartzen diren aldagaiak direla esan dezakegu (Gómez eta Vassallo, 2013).

1.TAULA: Errepide bidezko garraioaren fiskalitatea European

Herrialdea	Ibilgailuaren gaineko zerga €/urte	Erregaiaren gaineko zerga €/litro	Bidesariak/ Distantzia €/km
Alemania	929	0,47	0,18
Suitza	3.800	0,63	0,0185
Austria	1.752	0,4	0,35
Txekiar Errepublika	2.020	0,44	0,26
Eslovakia	2.471	0,37	0,19
Frantzia	932	0,43	0,2
Portugal	941	0,37	0,09
Polonia	750	0,39	0,09
Eslovenia	-	0,36	0,22
Hungaria	852	0,39	-
Spainia	1093	0,51	-

ITURRIA: Egileak moldaturikoa, International Transport Forum Database-tik (2012).

2.4.2. KOBRU-SISTEMAK

European tarifikaziorako erabiltzen diren kobru-sistemei dagokienean, bi sistema mota aurki ditzakegu, *free flow* izeneko teknologia aplikatuz funtzionatzen dutenak. Alde batetik, arku eta *videotolling* bidezko sistema dago eta bestetik, satelite bidezkoa. Bi sistema hauek elkarrekiko dituzten ezberdintasun nagusiak azpiegitura mota, eraginkortasuna eta egiazkotasuna dira (Saldaña eta Vassallo, 2012).

- **Arku eta *videotolling* bidezkoa:**

Ibilgailuan instalatuta joango den OBU (*on board unit*) izeneko aparailu baten bidez, ibilgailua arkuaren azpitik pasatzean automatikoki egiten da kobrua. Ibilgailuaren eta gidariaren datuak sisteman erregistratuta egotea derrigorrezkoa da, ondoren OBU aparailua ibilgailuan bertan txertatzeko eta kobruak kontu korrante bidez, automatikoki, gauzatu ahal izateko (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Ibilgailua arkutik igarotzean bertan txertatuta dagoen sistema elektronikoak sentzore batzuen bidez ibilgailu bakoitza identifikatuko du, ordaindu beharreko bidesari kopurua zehaztuz.

Videotolling bere hutsean ez da oso sistema zehatza, eta beraz, arkuaren gehigarri moduan erabiltzen da, sistemari zehaztasuna gehitzeko funtzioa betez. Igarotzen diren ibilgailuen matrikula irakurgailu gisa dihardu, txertatuta dituen kamerek ibilgailuaren matrikula detektatu eta antzematen dutelarik (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

- **Satelite bidezkoa:**

Sistema honetan ere ibilgailuek OBU aparailua bertan txertatuta eraman beharko dute egindako kilometro kopurua zehazteko, eta horren arabera ordaindu beharreko bidesari kopurua kalkulatzeko. GSM edo GPRS bidez, OBU aparailuaren

eta satellite bidez jasotako datuen elkar-trukaketa bat ematen da, eta prozesuaren amaieran ibilgailuaren gidariari gutun bat iristen zaio ordaindu beharreko kuota adieraziz.

Satelitearen bidez, edozein ibilgailuk ia errepide sare guztian momentu oro dituen mugimenduak kontrolatzea ahalbidetzen da, eta hau da aurreko sistemarekiko duen ezberdintasun nagusia (Saldaña eta Vassallo, 2012).

2.4.3. HERRIALDE EZBERDINEN KASUEN AZTERKETA

Jarraian Europar Batasuneko herrialde ezberdinen kasuak aztertu eta konparatuko ditugu, lurralde ezberdinen artean dauden aldeak ikusiz eta elkarren arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak alderatuz. Horretarako, hainbat herrialderen kasuak azaleratuko ditugu, hala nola, Alemania, Suitza, Austria, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Frantzia, Portugal, Polonia, Eslovenia eta Hungaria.

Kasu bakoitzean, jarraian aipatuko ditugun puntuak ikertuko ditugu laburki, eta ondoren taula batean elkarren arteko konparaketa burutuko dugu. Honako hauek dira erabiliko ditugun aztergaiak: lehenik eta behin, herrialde bakoitzean gaur egun indarrean dagoen tarifakazio modeloa ikusiko dugu, modelo hori aplikatzen den errepide sareaz gain. Jarraiki, legezko esparruaren eta esparru instituzionalaren ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu. Azkenik, erabiltzen diren teknologia eta kobru-sistemetan zentratuko gara.

Herrialde batek duen azpiegitura beharra bere tamainarekin eta kokapen geografikoarekin hertsiki erlazionaturik dago. Hori horrela, bertako errepide sarearen diseinua populazioaren egitura eta banaketarekin lotzen da. Horrez gain, Europako herrialde populatuena BPG maila handiena dutenekin bat datoz nagusiki. Beraz, ez da harritzekoa Europako errepide sare handienak populazio dentsitate handieneko eta BPG maila handieneko herrialdeetan kokatzea (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

2.TAULA: Europako errepide sarea populazioaren arabera

Herrialdea	Populazioa	Populazio dentsitatea (bizt/km ²)	Tarifikatutako errepide sarea (km)	Errepide sare totala (km)	Portzentaiak (%)
Alemania	82.850.000	232	13.000	644.480	2,02
Suitza	8.482.152	205	71.000	71.000	100
Austria	8.822.267	105	2.180	138.696	1,57
Txekiar Errepublika	10.610.055	135	1.200	127.719	0,94
Eslovakia	5.443.120	111	2.350	54.869	4,28
Frantzia	67.221.943	122	12.500	1.027.183	1,22
Portugal	10.291.027	112	1.600	82.900	1,93
Polonia	37.976.687	121	7.000	417.026	1,68
Eslovenia	2.066.880	102	465	38.985	1,19
Hungaria	9.778.371	105	6.500	203.601	3,19
Espania	46.659.302	92	2.991	683.175	0,44

ITURRIA: Egileak moldaturikoa, Datosmacro (2017), Saldaña, Vassallo eta Sierra (2012), Gómez eta Vassallo (2013), Index Mundi web orrialdea

Aurretik aipatu bezala, tarifikazio modelo eta kobru-sistema berri hauen ezarpena Europa erdialdeko herrialdeetan eman da nagusiki. Erabaki hauek hartu dituzten herrialde nagusienak taulan aipatu ditugunak izatea ez da kasualitate hutsa. Hauek dira merkantzien garraioan jarduten duten herrialdeen artean ibilgailu gehien jasan ohi dutenak eta errepideetan ibilgailu pilaketa handienak dituztenak.

Bidesari-sistema mota ugari daude, berezitasun nagusia erabilitako teknologia izanik. DSRC, GNSS eta takografoa dira sistema nagusiak, eta herrialde bakoitzak sistema egokiena hautatuko du bertan aplikatu eta martxan jartzeko. Horrez gain, zenbait sistema laguntzaile erabili ohi dira, nagusiki segurtasun eta zaintza arazoengatik. Horien artean aipa ditzakegu kamera bidezko matrikulen irakurgailu automatikoak, esaterako (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Europar Batasuneko herrialde horiek sakonago aztertzea behar beharrezkoa da bakoitzaren xehetasunak gertuagotik ezagutzeko eta erabiltzen dituzten sistema ezberdinak ikusteko. Era horretan, elkarren arteko alderaketak egitea edota gure iritzi propioa garatzea errazago suertatuko zaigu analisiaren amaieran. Beraz, banan-banan aztertuko dugu herrialde bakoitzaren kasua.

Lehendabizi Europako potentzia handienetako batean jarriko dugu arreta berezia. Alemania Europar Batasuneko herrialde garrantzitsuenetako bat da, garrantzitsuena ez esatearren. Potentzia ekonomiko, industrial eta demografiko nagusia da, eta bere kokapenak, Europa erdialdean, esanahi handia du horretan.

Azken urteetan, merkantzien garraioan eman den hazkunde konstantea dela eta, Alemania ibilgailu astunen zirkulazioan nazioarteko herrialde nagusia dela esan dezakegu. Hazkunde horrek bertako errepide sareek jasan beharreko ibilgailu karga nabarmen handitzea dakar. Arazo hori ondo kudeatzeko inbertsio handiak egin behar izan ohi dira errepideen mantenuan eta azpiegitura berriak martxan jartzean. Hori izan zen, hain zuzen, 2005. urtean Alemaniako Gobernuak ibilgailu astunentzat tarifikazio modelo berri bat ezartzearen arrazoi nagusia (Toll Collect, 2012).

Gaur egun oraindik ere indarrean dagoen ordainketa sistema hau tarifikazio modulaturakoa da, 12 tonatik gorako ibilgailu astunek soilik ordaindu behar dute bertako autopisten erabileragatik. Ordaindu beharreko tarifa-prezioa finkatzeko hainbat aldagai hartzen dira kontuan, hala nola, ibilgailuaren ardatz kopurua, egindako distantzia eta gasen emisio-maila (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Alemanian tarifikaziorako erabiltzen diren kobru-sistemei dagokienean, *free flow* teknologian oinarritzen den sistema berri bat jarri zuen martxan. Alor honetan Europako erreferente izanik eta kobrurako teknologia berriak aplikatuz, lokalizaziorako teknika gisa, sateliteak (GNSS) eta telefono mugikorraren teknologia (GSM) lehen aldiz konbinatu zituen herrialdea izan zen.

Bertako errepideetako partaidetza publiko-pribatua da, eta 2005. urteaz geroztik Toll Collect agentzia arduratzen da tarifikazio prozesua gauzatzen. Administrazio publiko nagusia VIFG (Azpiegituren Finantzaziorako Agentzia Publikoa) deitzen da, eta bere

eginkizun nagusien artean, tarifak finkatzea, azpiegituren finantzazio programen diseinua eta urteko aurrekontuak adostea aurki ditzakegu.

Enforcement edo betearazi beharreko arauak Alemaniako Garraio Ministerioaren esku daude. Bidesariaren ordainketa derrigorrezkoa denez, errepedeko polizia eta BAG (Merkantzien Garraiorako Bulego Federala) agentzia publikoa arduratzen dira ordainketen kontrola mantentzeaz (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

Jarraiki, BPG-ren arabera munduko laugarren herrialde aberatsena dena izango dugu aztergai (FMI, 2017). Suitzak 1985. urtean ezarri zuen bere errepedeak erabiltzeagatik ordaintzeko sistema, binetaren bidez ibilgailu mota guztiek tarifa jakin bat ordaindu behar zutelarik. Bineta horretatik bildutako diru guztia errepedeetako gastuetarako erabiltzen da (Gómez eta Vassallo, 2013).

Horrez gain, ibilgailu astunentzat tarifakazio sistema berezi bat jarri zuten martxan, kokapen geografikoari esker ibilgailu hauen karga oso handia baitzen. Erabaki honen helburu bakarra ez zen izan ibilgailu astunen trafikoa gutxitzea, izan ere, Suitzako Gobernuak beste helburu batzuk ere bazituen esku artean. Ingurumenaren babesaz gain, merkantzien garraioa errepedeetatik trenbideetara pasa nahi zuen neurri handi batean, eta diru-iturri berriak lortu nahi zituen azpiegitura berriak finantzatzeko.

2001. urtean Gobernu suitzarrak tarifakazio modulatuako sistema berri bat jarri zuen martxan, 3,5 tonatik gorako ibilgailuek soilik ordaindu behar zutena. Sistema hau kudeatzen duen administrazioa Federal Custom Administration (FCA) izenez ezagutzen da. Ordaindu beharreko tarifa-prezioa finkatzeko hainbat aldagai hartzen dira kontuan, hala nola, egindako distantzia, ibilgailuaren neurriak eta pisua edota gasen emisio-mota (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

Nahiz eta ez den Europar Batasuneko herrialdea, bere kokapen geografikoa inguruko herrialde handientzat estrategikoa da, Frantzia, Alemania eta Italiatik datorren merkantziarentzat, esaterako. Herrialde batetik bestera igarotzean, Suitzatik pasatzen den garraio kopurua handia denez, efektu negatiboak dakartza bertakoentzat. Hori horrela, Gobernu suitzarrak neurriak hartu ditu, bere azpiegituren kostuak atzerritarrek finantzatu ditzaten hein handi batean (Gómez eta Vassallo, 2013).

Suitzan tarifakaziorako erabiltzen diren kobru-sistemei dagokienean, erabiltzen den *free flow* teknologia DSRC deitzen da. Horrez gain, ibilgailu bakoitzean OBU aparailua instalatuta ematea derrigorrezkoa izango da bertako gidarientzat, datuak sistemara bidaltzeko gutxienez hilean behin. Turistentzat edota gidari atzerritarrentzat aukerazkoa izango da OBU aparailua eraman hala herrialdetik irteterakoan dagokien kuota ordaindu (Tripon, 2012)

Suitzako errepede sareak berezitasun nabarmenak ditu Europako beste herrialdeekiko; alde batetik, tarifikatutako errepede sareak Suitza osoko errepedeak barneratzen ditu, guztira 71.000 kilometro (Rapp & Balmer, 2004). Bestetik, lortutako diru-sarrerak modu honetan banatzen ditu: 1/3 Suitzako kantonamenduei banatzen zaie, garraio-politiketan berrinbertitzeko helburuarekin, eta gainontzeko 2/3 Gobernuak trenbide proiektuak

finantzatzeko erabiltzen ditu. Honen arrazoia, aurretik esan dugun moduan, merkantziaren garraioa errepidetik trenbideetara aldatzeko interesa da (Gómez eta Vassallo, 2013).

Suitzaren mugetatik jarraituz, Austrian jarriko dugu arreta. 2004. urteaz geroztik, Austrian ibilgailu astunentzako tarifikazio modulatu sistema martxan dago. Erabaki honekin hasiera batetik lortu nahi izan diren helburu nagusiak, azpiegituren eraikuntzarako eta mantenturako finantzazioa lortzea eta errepide sarearen funtzionamendu egokia bermatzea izan dira.

Austrian ibilgailu guztiek ordaintzen dute errepideen erabileragatik, baina tarifikazio modeloa ibilgailuaren arabera ezberdintzen da. Alde batetik, ibilgailu arinei bineta sistema bat ezartzen zaie, balio-epareen eta ibilgailu motaren arabera. Bestetik, ibilgailu astunei Eurobineta sistema bat aplikatzen zaie, hau da, aurreko paragrafoan aipatu dugun tarifikazio modulatu sistema. Hauen kasuan, ibilgailuaren ardatz kopurua, egindako distantzia eta gasen emisio-mota hartzen dira kontuan (Engdahl eta Sieber, 2004).

Austrian tarifikaziorako erabiltzen den kobru-sistemari dagokionean, Suitzaren kasuan bezala, *free flow* teknologian oinarritutako DSRC sistema erabiltzen da. Austriako errepideen enpresa arduraduna Asfinag deitzen da, eta bere filiala den Asfinag Maut Service enpresa arduratzen da kobru-sistemaren kudeaketaz eta gestioaz. Asfinag enpresa publikoa da, eta 1997. urteaz geroztik bertako errepide sarearen gestio, funtzionamendu eta mantenu ardurak bere esku daude. Horrez gain, *enforcement* lanak ere barneratzen ditu, poliziarekin batera elkarlanean. Azpiegitura berrien eraikuntzak eta hauen mantenu lanak, aldiz, enpresa pribatuen esku geratzen dira (Asfinag, 2012).

Ondoren, Austriaren mendebaldera joko dugu, Txekiar Errepublikara. 2004. urtean, Txekiar Errepublika Europar Batasunean sartzearekin batera, tarifikazio modelo bat ezartzea onartu zuten errepideen erabileragatik. Hauen egoera nahiko kaxkarra zen, eta mantenturako eta berrikuntzetarako diru-iturri bat izatea ezinbestekoa zuten errepide sarea hazteko eta garatzeko.

Hasiera batean, ibilgailu guztientzat bineta sistema bat aplikatu zuten eta 4 urte beranduago, tarifikazio modulatu sistema batera igaro ziren. Gaur egun ibilgailu guztiek ordaintzen dute errepideen erabileragatik, baina tarifikazio modeloa ibilgailuaren arabera ezberdintzen da. Ibilgailu arinei 2004. urtean ezarritako bineta sistema aplikatzen zaie eta ibilgailu astunei, aldiz, tarifikazio modulatu sistema. Ordaindu beharreko tarifa-prezioa finkatzeko hainbat aldagai hartzen dira kontuan, hala nola, ibilgailuaren ardatz kopurua, egindako distantzia, gasen emisio-mota eta errepide mota (Myto CZ, 2014).

Txekian tarifikaziorako erabiltzen diren kobru-sistemei dagokienean, erabiltzen den *free flow* teknologia DSRC deitzen da. Hala ere, 2008. urtean tarifikatutako errepide sarea zabaltzeko proiektu bat martxan jarri zen. Proiektu hori, jadanik ezarria zegoen DSRC teknologian oinarritzen zen, satelite (GNSS) bidezko tarifikazio sistema berri bat gehituaz (Kapsch, 2008).

Herrialde honetako errepideen eta tarifikazio sistemaren kontrola Garraio Ministerioaren (Ministry of Transport) esku dago. Honekin elkarlanean PPP Centrum izeneko agentziak dihardu, bere ardurak proiektu berrien garapena eta kudeaketa direlarik. Tarifikazio sistemari dagokionez, ordainketak kontrolatzeko zenbait arku daude, ibilgailuen OBU aparailuekin komunikatzen direnak. Horrez gain, *enforcement* lanak Txekiako poliziarik dagozkie. Kasu honetan, hauen eginkizun nagusiak, ibilgailuen OBU sistemak egiaztatzea eta bidesarien ordainketak kontrolatzea dira (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Europa erdialdeko herrialdeekin jarraituz, Eslovakiaren kasua aztertuko dugu. Eslovakiak, Europa erdialdeko beste hainbat herrialdetan egin bezala, tarifikazio modelo bat ezartzea onartu zuen errepideen erabilerrazatik. Errepide sarearen mantenurako eta berrikuntzetarako diru-iturri bat izatea garrantzitsua da etorkizunera begira, eta horregatik, ibilgailu motaren arabera tarifikatzen dute hauen erabilera. Ibilgailu arinei bineta sistema bat aplikatzen zaie eta ibilgailu astuneiei, aldiz, tarifikazio modulatuako sistema. Ordaindu beharreko tarifa-prezioa finkatzeko hainbat aldagai hartzen dira kontuan, hala nola, ibilgailu mota, pisua eta ardatz kopurua, egindako distantzia, gasen emisio-mota eta errepide mota (SkyToll, 2014).

Eslovakian tarifikaziorako erabiltzen diren kobru-sistemei dagokienez, erabiltzen den teknologia satelite bidezkoa da (GNSS). Alemaniaren urratsak jarraituz, bigarren herrialdea izan da estilo honetako sistema aplikatzen. Sistema honek, satelitearen (GPS) bidez ibilgailua lokalizatu eta bere mugimenduak kontrolatzen ditu. Telefono mugikorraren teknologiaren (GSM) bidez, aldiz, ibilgailuaren OBU datuen transmisioa ematen da.

Bidesarien ordainketen kontrola edo *enforcement* lanak bi modutara egiten dituzte: alde batetik, DRSC arkuak ditugu, ibilgailuen OBU aparailuekin komunikatzen direnak eta bestetik, Eslovakiako polizia dago (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Ezin ahaztu, Alemaniarekin batera Europar Batasunean erreferente den beste herrialde bat. Frantziako errepide sarearen gestioa eta kudeaketa administrazio publikoaren (AFITF) eta enpresa pribatuen esku dago. 2013. urtetik aurrera Gobernuak ezarritako *eco-charge* izeneko tasa aplikatzen da. Honen helburu nagusiak honako hauek dira: alde batetik, merkantzien garraioa gutxitzea eta optimizatzea bilatzen du. Bestetik, diru-iturri egonkor bat lortu nahi du garraio-politikaren garapena finantzatzeko eta egungo errepide sarearen mantenu lanetarako (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

Frantziako tarifikazio modulatuako sistema 3,5 tonatik gorako ibilgailu astunentzat soilik da aplikagarri. Ordaindu beharreko tarifa-prezioa finkatzeko hainbat aldagai hartzen dira kontuan, hala nola, egindako distantzia, ibilgailu mota eta gasen emisio-mota. Horrez gain, Frantziako tarifikazio sistemak Europako beste herrialdeekin alderatuz badu bereizitasun bat. Bidesari tradizionalako ordainlekuak dituen autopista sare zabala du, hau da modelo tradizionalako eta tarifikazio modulatuako sistemak konbinatzen ditu lurraldeko errepide sarean zehar.

Tarifikaziorako erabiltzen diren kobru-sistemei dagokienean, erabiltzen den *free flow* teknologia DSRC deitzen da. Sistema honen gestioaz eta kudeaketaz arduratzen den enpresa Managing Partner (MP) deitzen da, eta datozen urteetan satelite bidezko GNSS sistema aplikatzea ikertzen ari da.

Bidesarien ordainketen kontrola edo *enforcement* lanak bi modutara egiten dituzte: alde batetik, DRSC arkuak ditugu, ibilgailuen OBU aparailuekin komunikatzen direnak eta bestetik, Frantziako polizia dago, Gendarmerie, hain zuzen (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

Orain arte aztertu ditugun herrialdeetan ez bezala, Portugalen kasua nahiko berezia da. Europako kanpoaldean dagoen herrialdea izanik, erdialdean kokatzen diren herrialdeek baino askoz ibilgailu pilaketa gutxiago jasaten du bere errepide sareak. Esaterako, atzeritik datorren merkantzia garraioa ez da oso handia eta hori bertako errepideentzat lagungarri suertatzen da (Sistema de Identificação Electrónica de Veículos, 2010).

Horrez gain, bidesari sistema elektronikoa tradizionalarekin uztartzen da, hau da, eskuz ordaintzen diren hesizko ordainlekuak ere erabiltzen dira zenbait autopistetan. Sistema elektronikoa dagokionez, tarifikaziorako erabiltzen den kobru-sistema *free flow* teknologiari dagokion DSRC sistema da. Hauen kontrola errepidean zehar ezartzen diren arkuen bidez gauzatzen da eta tarifa-prezioa ibilgailu motaren eta egindako distantziaren arabera finkatzen da. (Amorim *et al.*, 2014).

Gainera, Europako beste herrialdeekin alderatuz, ezberdintasun handia dago bidesarietatik ateratako diru-iturrien hartzaileri dagokionean. Gainerako herrialdeetan ez bezala, Portugalek diru hori Estatura bideratzen du, herrialdeak bizi dituen arazo ekonomikoari aurre egiteko helburuarekin. Arraroa dirudi diru publikorik ez zuzentzea azpiegiturak hobetzeko edo errepide sarearen mantenu eta hobekuntzetarako (Sistema de Identificação Electrónica de Veículos, 2010).

Errepide sarearen gestioan eta kudeaketan jarduten duen enpresa Estradas de Portugal (EP) deitzen da eta agentzia hau da herrialde osoko errepide sarearen jabea. Via Verde izeneko enpresa publikoarekin elkarlanean uztartzen ditu tarifikazio lanak. Aipatu berri dugun enpresa honen eginkizuna kobru-sistemen funtzionamendu egokia ziurtatzea da eta Estradas de Portugalen egitekoa, aldiz, tarifa-prezioen finkapena.

Bidesarien ordainketen kontrola edo *enforcement* lanak bi modutara egiten dituzte: alde batetik, DRSC arkuetan txertatuta dauden irakurgailu eta bideokamera bidez, eta bestetik, Portugaleko Guardia Nazionalaren bidez (Brigada Fiscal de la Guardia Nacional Republicana) (Saldaña, Vassallo eta Sierra, 2012).

Polonian, Europa erdialdeko gainerako herrialde gehienetan bezala, azken hamarkadan tarifikazio modulatu sistema garatu da. Sistema honen helburua, errepide sarearen finantzazioaren diru-iturri nagusia izatea da, azpiegitura berriak egiteko edota egungo errepideen mantenu eta hobekuntzarako.

Tarifikaziorako erabiltzen den kobru-sistema, aztertutako herrialde gehienetan antzera, *free flow* teknologiari dagokion DSRC sistema da (Nowaki, Mitraszewska, & Kami, 2011).

Tarifikazio hau soilik ibilgailu astunentzat da aplikagarria, horien artean, merkantzia garraioak eta autobusak barneratzen direlarik. Tarifa-prezioari dagokionean, 4 aldagaien arabera finkatzen da: ibilgailuaren pisua, egindako distantzia, gasen emisio-mota eta errepide-mota (ViaTOLL, 2014).

Bidesarien ordainketen kontrola edo *enforcement* lanak bi modutara egiten dituzte: alde batetik, DRSC arkuetan txertatuta dauden irakurgailu eta bideokamera bidez, eta bestetik, Poloniako poliziaren bidez (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Honetaz gain, Esloveniaren kasua ere aztergai interesgarria da. 2004. urtean, Eslovenia Europar Batasunean sartzearekin batera, tarifikazio modelo berri bat ezartzea onartu zuten errepideen erabileragatik (Prah, 2012). Gaur egun ibilgailu guztiak ordaintzen dute, baina tarifikazio modeloa ibilgailuaren arabera ezberdintzen da Eurobinetako sistemari jarraiki. Hortaz, ibilgailu arinek eta astunek ordaindu beharreko tarifa-prezioak ibilgailu motaren eta egindako distantziaren arabera finkatzen dira. Tarifikaziorako erabiltzen den kobru-sistema, kasu honetan ere, *free flow* teknologiari dagokion DSRC sistema da, eta ordainketa OBU aparailuaren bidez egiten da.

DARS enpresa publikoaren esku dago Esloveniako autopista sarearen gestioa eta kudeaketa. Bidesarien ordainketen kontrola edo *enforcement* lanetarako enpresa honek arkuetan matrikula irakurgailu eta bideokamerak kokatzen ditu. Horrez gain, zenbait kontrol ezartzen ditu poliziak iruzurra ekiditeko helburuarekin.

Herrialdeen azterketa honekin amaituz, Hungarian jarriko dugu gure begirada. Hungarian ere errepideen erabileragatik ordaindu behar da, batez ere, azken hamarkadatik hona. Europan estrategia hau aplikatzen duten herrialde gehienek egiten duten moduan, hemen ere azpiegitura berrien finantzazio eta errepide sarearen mantenu eta hobekuntzarako diru-iturri izatea du helburu. Ibilgailu mota guztiak derrigortuta daude bidesaria ordaintzera, bai arinak eta bai astunak. Tarifa-prezioaren finkapenean eragiten duten aldagaien artean, egindako distantzia, errepide-mota eta gasen emisio-mota aipa ditzakegu (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

Tarifikaziorako erabiltzen den kobru-sistema, gehiengoan antzera, *free flow* teknologiari dagokion DSRC sistema da, eta ordainketa OBU aparailuaren bidez egiten da. Sistema hau, Hungariako errepideen gestioan eta kudeaketan diharduen enpresa publiko batek ezartzen du.

Bidesarien ordainketen kontrola edo *enforcement* lanetarako aurretik aipatu dugun enpresak arkuetan matrikula irakurgailu eta bideokamerak kokatzen ditu. Horrez gain, zenbait kontrol ezartzen ditu poliziak iruzurra ekiditeko helburuarekin (De las Heras, Gómez eta Vassallo, 2016).

3.TAULA: Tarifikazio modulatuako sistema

Herrialdea	Ezarritako urtea	DSRC	GNSS	Takografoa
Alemania	2005		X	
Suitza	2001			X
Austria	2004	X		
Txekiar Errepublika	2007	X		
Eslovakia	2009		X	
Frantzia	2013	X		
Portugal	2008	X		
Polonia	2011	X		
Eslovenia	2004	X		
Hungaria	2013	X		
Espainia	2018	X		

ITURRIA: Norberak egina

Taula honetan, herrialde bakoitzak erabiltzen duen tarifikazio modulatuako sistemaren barnean, zein teknologia mota aplikatzen duen ikus dezakegu. Herrialdeak alderatuz, teknologia erabiliena DSRC sistema dela nabarmen antzematen da. Aztertutako 10 herrialdeetatik 7k sistema hori bera erabiltzen dute beren errepideak tarifikatzerako orduan.

Aurretik aipatu ez badugu ere, taulan Espainia ere gehitu dugu, kasu berezia baita. Espainiako ahalmen handiko errepide sareak 17.163 kilometro (Ministerio de Fomento, 2017) ditu, horietatik 2.991 kilometro tarifikatzen direlarik. Hala ere, Espainiako tarifikazio sistemak Europako beste herrialdeekin alderatuz badu berezitasun bat: bidesari tradizionaleko ordainlekuak erabiltzen ditu soilik, hau da, modelo tradizionaleko sistema ezartzen da lurraldeko ahalmen handiko errepide sarean zehar.

Espainiaren barnean, Gipuzkoa izan da tarifikazio modulatuako sistema lehen aldiz aplikatu duen lehenengo probintzia. Estatuan aitzindaria den sistema honek ere, gainerako kasu gehienek bezala, DSRC sistema erabiltzen du bidesariaren kobrua aurrera eramateko.

2.4.4. ESPAINIAKO KASUA ETA BEREZITASUNAK

Espainiako garraio-politikaren helburuak jorratzeko, Campos eta Socorro-ren (2010) *Ekonomiaz* aldizkarian oinarritu naiz nagusiki. “El transporte de la sociedad del siglo XXI: política de transporte europea y española” deitzen den alean, garraio-politiken inguruko hausnarketa oso interesgarriak biltzen dira. Espainiako kasuari dagokionez, esanguratsuenak biltzen saiatu naiz atal hau osatze aldera.

Espainiako garraio-politikaren azken urteetako garapena 1978ko Konstituzioak eta 1986tik aurrera Europar Batasunak sinaturiko itun eta akordioek baldintzatzen dute. Azken 20 urteetan Fomentu Ministerioak garatutako garraio-politikak hiru helbururen inguruan jardun du nagusiki: azpiegitura eta garraio zerbitzuen liberalizazioan, mugikortasun iraunkorraren printzipioetan, eta azpiegituren hobekuntzarako inbertsio programa baten planifikazioan eta garapenean.

Liberalizazio politikei dagokienez, aurretik aipatu moduan, Europatik etorri diren bateratze politiken menpe egon da Espainia. XIX. mendearen bigarren erdian sektore hau Espainian gainerako Europako herrialdeetan baino erregulatuago zegoen, eta pixkanaka aldatzen joan da; esaterako, garraio-sistemak kontrolatzen zituzten monopolio publiko handiak boterea galtzen joan dira eta gaur egungo merkatuan indar gutxiago dute.

Esan dezakegu liberalizazio ondorengo egoera, hasierakoarekin alderatuz, askoz ere hobea dela, batez ere, erabiltzaileari begira eskaintzen den eskaintza zabalari eta aukera ezberdinei erreparatuz. Hala ere, garraio-merkatuan kompetentzia maila altua egoteak ez du esan nahi enpresa horiek eraginkortasun-maila handiarekin lanean jarduten dutenik. Izan ere, ez administrazio zentralak, ez eta autonomia erkidegotako Gobernuak, ez dute intentzio handirik erakutsi liberalizazio politikan aurrera egiteko.

2001. urtetik aurrera, liberalizazioaren inguruan ezarri ziren helburu gehienak bete ostean, Espainiako garraio-politika mugikortasun iraunkorraren printzipioetan sartzen hasi zen. Europar Batasunean zenbait Estatu printzipio horiek jorratzen hasiak ziren jada, eta Espainiak horiek eredu bezala hartuta, ez zuen atzean geratu nahi. Modu honetan, garraio-politikek trafikoaren intentsitate, kongestio eta kutsadura arazoei aurre egin behar ziela jarri zen mahai gainean. Horren irtenbide gisa, ingurumenaren aldeko kontzientzia garatuz, garraibide garbiagoak bultzatu eta kostu sozialak eta ingurumen kostuak erabat barneratu nahi zituzten.

Mugikortasun iraunkorreko estrategia horrek hazkunde ekonomikoa eta garraioaren hazkundera bilatzen du. Horrez gain, errepide bidezko garraioaren alternatibak bultzatzen ditu, batez ere, merkantzien garraioari dagokionean. Prezio-politikan ere ekarpen garrantzitsuak egiten ditu, garraioaren kanpoko kostuak barneratzerako orduan.

Garraio-politikak azken urte hauetan lortu duen helbururik esanguratsuenak, dudarik gabe, errepideetan hildakoen kopurua nabarmen jaisteak da. Legea gogortzea, santzioak

edota isunak handitzea eta puntukako karnetaren ezarpena dira, esaterako, ekarpenik aipagarrienak.

Espainiako garraio-politikaren barruan, azpiegituretako inbertsioek betetzen dute eremu esanguratsuenetako bat. Azken 30 urteetan, Espainiako azpiegiturek erreforma eta modernizazio sakonak jasan dituzte, sektoreko inbertsio totalek urteko BPG-ren ia %1 islatzen dutelarik. 2001. urtetik aurrera, aurretik aipatu bezala, Europako beste herrialdeekin bateratasun bat lortzeaz gain, garapen iraunkorreko estrategia aurrera eramaten hasi ziren Espainian ere (Ministerio de Fomento, 2008).

Inbertsio horietan esku hartu duena Fomentu Ministerioa izan da hein handi batean, errepideetan izan ezik. Hauetan %50eko esku hartzea izan du, beste erdia autonomia erkidego bakoitzari dagokiolarik (Gipuzkoaren kasuan, Bidegi). Esan dezakegu, Espainiak Europako gainerako herrialdeekin bateragarria den garraio-sistema duela, ahalmen handiko errepideei dagokienean batez ere.

Aurreko atalean, herrialdeen azterketa egin ondoren, Espainiako kasuari buruzko aipamena egin dugu. Esan bezala, Espainiako ordainpeko errepideetan ordainleku tradizionalak erabili dira soilik orain arte. Tarifakaziorako modelo tradizionala erabiltzeak, ibilgailuak gelditzera behartzea eta errepidean auto ilara amaigabeak sortzea dakartza, besteak beste.

Espainiako Gobernuak Eurobinetari buruzko 2011/76/CE⁷ Zuzentaraua atzeratzea erabaki du, zeinak ibilgailu astunei erabileraren araberako bidesaria ordaintzea derrigortzen duen. Hala ere, printzipioz behintzat, isunik edota santziorik aplikatzen hasi ezean, ez dute legeak dioena betetzen hasteko asmorik. Orain arte bezala, kontzesio bidez adostutako bidesariekin jarraitzeko asmoa dute, azpiegituren kostuetan oinarritzen den bidesari tradizionalan hain zuzen.

Gipuzkoan ezarri den bidesari sistema berria, Espainiara Eurobineta heltzeko lehen abisua izan daitekeela esan dezakegu. Estatuan ibilgailu astunen erabileragatik ordaintzen den probintzia bakarra da Gipuzkoa. Beste guztiei aurre hartuz, lehenengoak izan dira Europar Batasuneko Zuzentarauek diotena betetzen eta tarifakazio modulatuako sistema martxan jartzen.

⁷ 2011/76/CE Zuzentaraua: ibilgailu astunei buruzkoa, ardatz transeuroparretan bidesaria ezartzea derrigortzen duena.

3. GIPUZKOAKO ERREPIDEEN ERREALITATEA

3.1. SARRERA

Hainbat eta hainbat ibilgailu astunek egunero egin beharreko ibilbidearen parte da Gipuzkoa. Bere kokapen geografikoaren ondorioz, milaka ibilgailuren etengabeko joan-etorria jasaten du. Estatutik edota Gipuzkoatik bertatik abiatzen diren kamioiek, hemen bertan hartutako kargak Europako zenbait herrialdeetara garraiatzen dituzte. Eguneroko garraio hori ateratzen den bezala, sartu ere etengabe egiten da gure probintzian. Hortaz, Espainiako edozein eskualdetan helmuga duen edozein ibilgailu astunek, Frantziaren ostean Gipuzkoa osoa zeharkatu beharko du derrigorrez bere ibilbidean zehar.

Esan beharrik ez dago, horrek guztiak gure lurraldearengan sortzen duen inpaktua handia dela. Errepidea zeharkatzen duten ibilgailuen kopurua eta pisua zenbat eta handiagoa izan, horrek dakartzan mantenu kostuak eta kostu sozialak orduan eta handiagoak dira (El Diario Vasco).

N-1 errepidean ezarri den bidesari berria Estatuan aitzindaria da (Estatuan ezarri den kamioientzako lehenengo bidesari eskusiboa), Gipuzkoa lehenengo eskualdea izan baita honelako ordainketa modua abian jartzen. Sistema honen ezarpenaren atzean, jarraian modu sakonagoan aztertuko ditugun hainbat eta hainbat arrazoi daude; esaterako, kokapena eta orografia, errepide sarearen ezaugarriak eta finantzazioa.

1. IRUDIA: Errepideen mapa



ITURRIA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrialdea – Gipuzkoako errepideak atala

3.2. BIDE AZPIEGITURAK

Gipuzkoako Bide Azpiegituretako Departamentuaren eginkizunak eta jarduera esparru nagusiak errepide sarea planifikatu eta eraikitzea, eta eskualdeko azpiegitura sarea kontserbatu eta ustiatzea dira. Atal honi buruzko informazioa lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrialde ofizialean dagoen Bide Azpiegituren atalean eta Gipuzkoako errepideen atalean oinarritu gara.

Eguno legealdi honetarako hainbat helburu nagusi ditu finkaturik departamentuak: Gipuzkoako biribilgunea amaitzea; eskualdea zeharkatzen duten ibilgailu astunei ordainsaria eskatzeko sistema berria martxan jartzea (N-1, Etzegarate); errepideen mantentzea optimizatzea; autobideko sarbideak eta errepideen sarea hobetzea; eta Bidegi foru sozietatearen eredu indartu eta sustatzea erabiltzaileen kudeaketak errazteko konponbide teknologikoak abian jarri.

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzak zenbait helburu estrategiko ditu, hainbat jarduera ildotan eta ekintzatan banatuta. Helburu estrategikoen jarraipena egiteko, kontuan hartzen dira adierazleak betetzea, jarduera ildo aurrerapen maila, jardura ildo aurrerapen gradua eta aurrekontuaren gauzatzea.

Jardura ildoak ekintzek osatzen dituzte, eta, halaber, departamentu bakoitzean helburu estrategikoak betetzeko egiten diren jarduerak definitzen dituzte. Ekintza eta jardura ildo bakoitza aurrerapen graduaren arabera neurtzen da: %0tik (hasi gabe) %100era (amaituta) bitartean. Jarraian, Bide Azpiegituretako Departamentuaren 2018ko helburu estrategikoak betetzeko burututako jarduerak aipatzen dira. Bertan ikus daiteke jardura ildo bakoitzaren aurrerapen gradua zenbatekoa den gaur egun.

4. TAULA: Jardura ildo aurrerapen maila

Jardura ildoak	Aurrerapen maila
Plan ekonomiko finantzarioa modu eraginkorrean kudeatzea	% 91,67
Irunen AP-8 autobidearen lotura berriaren proiektuaren aurrerapena egitea	% 0,00
GI-632 errepidearen Antzuola-Bergara tartea lizitatzea eta eraikitzea	% 31,87
Bide-segurtasunari lehentasuna ematea eta hobetzea	% 25,83
Argiztapen sistemak pixkanaka hobetzea	% 25,00
TOTALA	% 34,87

ITURRIA: Egileak moldaturikoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrialdetik

Bide Azpiegituren Departamentuaren osaketari dagokionez, taldearen banaketa orokorra, jarraian atxikitako taulan ikus daitekeen moduan, nahiko sinplea da: Bide Azpiegituretako Foru Diputatuak eta errepede eta kudeaketa/plangintza alorretako zuzendariak osatzen dute.

Bi alor horiek zuzendaritza banatan banatzen dira. Errepedetako Zuzendaritza Nagusiaren zeregin nagusia Gipuzkoako Errepede Sarea eraikitzea da, gizartearen beharrei modu eraginkorren erantzuteko. Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiak, aldiz, Gipuzkoako Errepede Sarearen planifikazioa eta eraikita dauden errepedeen kudeaketa ditu ardatz.

5. TAULA: Departamentuaren osaketa

Bide Azpiegituretako Foru Diputatuak	Aintzane Oiarbide
Alorretako zuzendariak	Errepedeak: Silvia Pérez
	Kudeaketa eta Plangintza: Mikel Uribetxebarria

ITURRIA: Egileak moldaturikoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrialdetik

3.3. BIDEGI

Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, AP-1/AP-8 eta AP-1 autobideetako Gipuzkoako zatiak kudeatzen dituen sozietatea da. Guztira ahalmen handiko 107 kilometro autobide kudeatzen ditu, eta Europa iparraldea eta erdialdea Penintsularekin eta Afrika iparraldearekin lotzen dituen Europan zeharreko komunikazio-ardatz estrategiko bat osatzen dute. Horrez gain, N-1 errepidean kobrantza-sistema ezartzeko eta Gipuzkoako biribilgunea izenekoa osatzeko duen GI-632 errepideko Antzuola-Bergara zatiko lanak egiteko ardura ere badu.

Sozietatea Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu zuen 2003ko ekainean, Behobiatik Bilbora Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeak zeharkatzen zituen AP-1/AP-8 autobidea, une hartan bakarria zena, Foru Aldundiari itzuli zitzaionean.

Eratu zenetik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aginduta, Bidegik bere gain hartu zituen, besteak beste, AP-1/AP-8 mantentzeko, AP-1 berria (Donostiako bigarren ingurabidea) egiteko eta finantzatzeko eta AP-1/AP-8ko Irundik Oriora bitarteko hirugarren erreak eraikitzeko lanak. Inbertsioak bi autobideek sortzen dituzten diru-sarrerekin finantzatzen dira. Bidegik gauzatu eta finantzatzeko proiekturik garrantzitsuenen artean, 2015. urtean "Abiatu" jarri zuen martxan, indarrean dauden deskontuak lortzeko teleordainketarako gailu bakarria.

Kudeaketa-eredu horri esker Gipuzkoako Foru Aldundiak, bide azpiegiturretan eskudun bakarria denak, Aldundiaren eskumenekoak diren beste helburu batzuetara bidera ditzake zergak, besteak beste: gizarte-politikak sendotzera, lurraldearen jarduera ekonomiko eta industrial bultzatzera edota Gipuzkoako lurralde-oreka eta gipuzkoarren ongizatea bermatzeko duten programetara.

AP-1/AP-8 eta AP-1 autobideek 38 zubibide eta 22 tunel dituzte orotara, horietako bat, Isuskitzakoa, Euskadiko luzeena izanik. 21 sarrera/irteera eta 6 zerbitzugunez osatua dago. Mendiz eta haran estuz osatutako Gipuzkoako orografia konplexuan bi autobideak gauzatu eta abian jartzeko erronkari aurre egin ahal izateko, diseinu eta ingeniari lan handia egin behar izan da. Horren arrazoiak, batetik, egunero izaten dituzten milaka erabiltzailearen segurtasuna bermatzea eta bestetik, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izatea dira (Bidegiren web orrialdea).

Bidegi enpresaren funtzionamendua eta helburuak sakonean aztertzeko bidean, El Diario Vasco egunkarian argitaraturiko "Empresas números 1" izeneko eranskinean oinarritu gara. Azken 15 urteetan Bidegi izan da Gipuzkoako gaitasun handiko errepideen gestio eta kudeaketa zerbitzuaz arduratu den enpresa. 2002. urtean, AP-8 autobidea eraiki zuen enpresaren kontzesioa amaitu zenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak sozietate anonimo bat sortzea erabaki zuen, Aldundia bera izanik akziodun bakarria. Bidegiko zuzendari nagusia den Alfredo Etxeberriaren esanetan, "autopista kudeatzeko eta ustiatzeko helburuarekin sortu zen Bidegi, bidesariaren kobrua mantentzeko erabakia hartuz".

Bidegik Gipuzkoako Foru Aldunditik datozen mandatu eta aginduak betetzen ditu. Administrazio kontseiluari dagokionez, Bide Azpiegituretako Foru Diputatua den Aintzane Oiarbide errenteriarraren gidaritzapean, Batzar Nagusietako alderdi politiko guztiek parte hartzen dute; hala nola, EAJ/PNV, PSOE, PP, Podemos-Ahal Dugu eta EH Bildu.

Europar Batasunaren aginduei eta Zuzentarauei jarraiki, Bidegik bere jardueragatik lortzen dituen irabaziak errepideak hobetzean inbertitu behar ditu. Hau da, autofinantzazioan oinarritzen den enpresa bat da. Alfredo Etxeberriaren hitzetan “Bidegik burutu dituen inbertsio guztiak bidesariaren kobruaren bitartez autofinantzatu dira”. Era honetako inbertsioak egin ahal izateko, enpresak likidezia handia behar du, eta horretarako gestio zuzen bat egiten dute. Hitz gutxitan azalduta, bidesariaren bidez bildutako diruaren %100 zuzenean inbertitzen da errepideetan, ez da Aldundiaren ez eta Ogasunaren eskuetatik pasatzen.

Gainera, Gipuzkoaren kokapen geografikoaren ondorioz, ahalmen handiko errepideek garrantzia hare gehiago hartzen dute Estatuko beste lurraldeekin alderatuz. Frantziaren eta Espainiaren artean egote horrek, zalantzarik gabe, protagonismo handia ematen dio ahalmen handiko ardatz transeuroparrean. Hala ere, horrek guztiak bere betebeharrak dakartza, hala nola, ibilgailu astunen trafikoa kontrolatzea eta kudeatzea.

Bidegiren helburu nagusienetako bat ahalmen handiko errepideetako erabiltzaileak asebeteko dituen kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea da. Hori lortzeko, trafikoaren jario azkarra lortzean eta errepideko lanek erabiltzaileei ahalik eta gutxien eragitean dago gakoa.

Horrez gain, garrantzitsua da etengabeko azterketak egitea, erabiltzaileen eskaerei ahal den neurrian erantzuteko eta etorkizuneko beharrak irudikatzeko. Bizitzako arlo guztietan gertatzen den moduan, Bidegin ere argi daukate etorkizuna teknologia berriek markatuko dutela eta horretara moldatzen eta egokitzen joan beharko direla.

Laburbilduz, zuzendari nagusiaren arabera, Bidegi “lurraldearen beharretara egokituriko proiektu eredugarri, kaudimendun eta arduratsua da, non erabiltzaileak bere erabileragatik ordaintzen duen eta horrekin autofinantzatzen den”.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hiru lurralde historikoen emakidadunen eta Bidegi eta ASFn arteko elkarreragingarritasun akordioari esker autobide hauetan nahi adina joan etorri egin daitezke modu erosoan eta lurralde bakoitzean joan-etorria ordaintzeko azpiegituretik atera gabe.

Gipuzkoan autobideak Bidegiren esku dauden moduan, Bizkaian Interbiak izeneko sozietatea da eskumen horren jabe. Bidegi eta Interbiak, era bateratuan, bi lurraldeak gurutzatzen dituen AP-1/AP-8 autobideko kudeaketaz arduratzen dira. Interbiak-ek Bizkaia bidezatia kudeatzen du, Eibar eta Ermua bitartean kokaturiko mugatik Bilboraino. Bidegik, aldiz, Gipuzkoako bidezatia kudeatzen du, Behobiatik hasita Eibar eta Ermua bitartean kokaturiko mugaraino.

Hirugarren lurraldeari dagokionez, Araban, Arabat izeneko sozietateari dagozkie errepideen ardurak. Bidegi eta Arabat, era bateratuan, Araba eta Gipuzkoako lurraldeak gurutzatzen duten AP-1 autobideko kudeaketaz arduratzen dira. Arabat-ek, Arabako bidezatia kudeatzen du, Isuskizako tunelean kokaturiko Gipuzkoako mugatik Gasteizeraino. Bidegik, aldiz, Gipuzkoako bidezatia kudeatzen du, Eibarretik hasita Isuskizako tunelean kokaturiko mugaraino.

2. IRUDIA: Euskadiko errepideen erakunde eskumendunak



ITURRIA: Bidegiren web orrialdea

2007. urtean, Teleordainketaren Elkarreragingarritasun zerbitzuaren lehenengo europear akordioa martxan jarri zen. Bidegi eta ASF (Autoroutes du Sud de la France) mugako bi aldeetatik teleordainketaren elkarreragingarritasunaren zerbitzua ematen aitzindariak dira. Horrela, sinpletasuna eta dohaintasuna lortzen da bi sozietate hauen bezeroek mugaren bi aldeetatik igarotzeko aukera baitute gehigarriko ekipamendurik eta gehigarri ekonomikorik gabe.

Akordio honi esker, Bidegik kudeatzen duen AP-1/AP-8 autobideko bost ordainleketan Liber-t Océan ASF teleordainketa onartzen da, eta espainiar teleordainketa ASF sozietatearen A-63 zein A-64 autobide sareetan onartzen da. TAG aparagailuen elkarreragingarritasunak 1 tarifa motako ibilgailuentzat bakarrik balio du, hau da, ibilgailu arinentzat (Bidegiren web orrialdea).

4. LANDA-LANA

4.1. AT SISTEMA


4.1.1. ZER DA

Bidegik dioenez, AT sistema, definizioz, “Euskadiko ordainleku jasagarrien lehen sistema adimenduna” da. AT sistema Gipuzkoako Foru Aldundiak N-1eko eta A-15eko azpiegiturak mantentzeko gastuei aurre egiteko emandako irtenbide aitzindaria da, eta gaitasun handiko bi errepide horiek egunero zeharkatzen dituzten salgaien garraiorako ibilgailuen artean kostu hori ordaintzeko Europako 2011/76/CE⁸ Zuzentarauari erreferentzia egiten dio.

Sistema adimendun berritzaile honen bidez, ibilgailuak arkitik pasatzen direnean, eta gelditu beharrik edo abiadura jaitsi beharrik izan gabe, salgaien garraiorako 3,5 tonatik gorako ibilgailuak detektatzen eta sailkatzen dira, eta bidesaria kobratzen zaie VIA-T gailuaren bidez edo matrikula irakurrita.

AT sistemarekin bi helburu nagusi lortu nahi dira Gipuzkoan: alde batetik, Gipuzkoa, Irundik Etzegarateko portura, N-1etik egunero zeharkatzen duten kamioi astunek errepidea mantentzen laguntzea izango litzateke lortzea aurreikusten den helburuetako bat. Gipuzkoako Foru Aldundiak ateratako datuen arabera, gipuzkoarren zergen bidez finantzatzen den errepide horretatik egunero 12.000 kamioiek zirkulatzen dute, horietatik erdiak baino gehiago, %56 zehazki esanda, atzerritarrak izanik. Beraz, aurrerantzean kamioilari atzerritarrak izango dira, hein handi batean, errepideen mantenu eta hobekuntza lanak finantzatuko dituztenak.

3. IRUDIA: Arkuen banaketa geografikoa



ITURRIA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrialdea

⁸ 2011/76/CE Zuzentaruua: ibilgailu astunei buruzkoa, ardatz transeuroparretan bidesaria ezartzea derrigortzen duena.

Bide Azpiegituretako Foru Diputatua den Aintzane Oiarbideren esanetan, “gipuzkoarrok ezin ditugu kokapen estrategikoa duen errepide honen mantenua eta hobekuntzak eskusiboki ordaindu. AT sistemarekin, Gipuzkoa igarotzen duten kamioi atzerritarrek ibilbide osoa ordaintzea bilatzen da, eta Gipuzkoa barneko garraiolariantzat ahalik eta eragin gutxien izatea nahi dugu”.

Bestetik, kamioietako batzuk AP-1 eta AP-8ra bideratzea bilatzen da. Modu horretan, N-1 errepideak jasaten duen zirkulazioa arintzea eta orekatzea lortu nahi da, eta hau litzateke sistema honen bidez lortu nahi den bigarren helburu nagusia. Izan ere, errepideak berak zeharkatzen dituen Gipuzkoako herrietako milaka gipuzkoarren eguneroko mugikortasunari eragiten dio.

Bi helburu nagusi horiez gain, sistema honen ezarpenak beste zenbait onura ekarriko ditu. Esaterako, mugikortasun iraunkorra bultzatuko da, inguruko udalerrien ingurumena hobetuz. Gainera, trafikoaren arintasuna hobetu eta N-1 errepidearen pilaketa eta istripu-arriskua murriztu egingo da.

AT sistema 2018ko urtarrilaren 9an jarri zen indarrean. Nahitaez bete beharreko 2011/76/CE⁹ Zuzentaraua aplikatzen da, salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunei zergak ezartzeari buruzkoa.

Aintzane Oiarbideak jakinarazi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bidegik ahalegin handia egin dute eta egunero bertan garraioan diharduten garraiolariantzat ahalik eta kalte gutxien eragiteko aukerak bilatu nahi izan dituzte. Hala ere, nabarmendu du Europako Zuzentarauak ez duela baimentzen bidesariaren kostuan inongo diskriminaziorik egitea erabiltzailearen nazionalitatearen arabera. Hori horrela, garraiolari gipuzkoarren mesederako, Europar Batasunak baimendutako beste mota bateko laguntzak aztertuko dituztela agindu du.

4.1.2. FUNTZIONAMENDUA

Aintzane Oiarbideak eta Bidegiko zuzendaria den Alfredo Etxeberriak, AT sistemaren ezaugarri nagusiak azaldu dituzte. Beraien hitzetan, *free-flow* sisteman oinarritzen da, eta bere funtzionamendua arkuetatik pasatzen diren ibilgailuen identifikazioan oinarritzen da. Bidesaria ordaintzeko kabina tradizionalen ordez, errepidean bertan arkuak ezartzen dira, eta arku horietan bertan txertatuta doa sistema. Kamioiak arku horien azpitik igarotzean, sistemak ibilgailu mota eta ibilbidea identifikatuko ditu, eta dagokion gailuarekin erlazionatuz bidesariaren kobrua gauzatuko da banku kontuaren bidez.

AT sistemak bidesariaren kobrua ibilgailua gelditu gabe gauzatzea ahalbidetuko du, eta beraz, ez dira egongo auto pilaketak. Kobru-sistema tradizionalarekin alderatuz, kutsadura eta soinu gutxiago eragingo du sistema berri honek. Ingurugiroari dagokionez

⁹ 2011/76/CE Zuzentaraua: ibilgailu astunei buruzkoa, ardatz transeuroparretan bidesaria ezartzea derrigortzen duena.

iraunkorragoa izateaz gain, teknologikoki Gipuzkoa Europako herrialde aurreratuenen pare kokatuko da. Europako herrialde aurreratuenek, aurretik aztertu ditugun zenbait kasutan esaterako, sistema hau barneratua dute beren egunerokotasunean, eta Gipuzkoa Estatu mailan aitzindaria izango da teknologia mota hau aplikatzen.

AT sistemaren funtzionamenduari dagokionez, xehetasun gehiagorekin aztertzea interesgarria litzateke. Sistema hau, ordainketa elektronikoa darabilen sistema bat da, portiko itxurakoa, eta ibilgailuak azpitik igarotzen dira, gelditu beharrik gabe.

Ibilgailua portikora hurbiltzen denean, eskaner batek detektatzen du, laser irakurgailu baten bidez ibilgailu astunak bakarrik hautatzen dituelarik. Aldi berean, matrikula-irakurgailu batek aurreko matrikula irakurtzen du. Ibilgailuak TAG (VIA-T) gailurik badu, antena-sistema bat gailuarekin komunikatuko da, eta automatikoki identifikatuko du. Gailu hori ez badu, ibilgailua matrikula-irakurgailuaren bidez identifikatuko da.

Azkenik, ibilgailuak arkuia pasatzen duenean, sistemak atzeko matrikula irakurriko du. Honen bidez, irakurketa bikoitza egitea lortzen da, datuen sendotasuna bermatzeko. Datu horiek guztiak bildu ondoren, AT sistemak igarotzeko eta bidesaria kobratzeko prozesua hasiko du, transakzio fisikorik egin beharrik izan gabe.

4.1.3. ERABILTZAILA

Kanona aplikatuko zaie salgaiak garraiatzeko erabiltzen diren eta 3,5 tonatik gorako gehiengo pisu baimendua duten ibilgailuei. Ibilgailu arinei eta pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailu astunei ez dagokie kanona, beraz, hauei ez zaie aplikatuko.

Arku bakoitzak bertatik pasatzen diren ibilgailuen bolumena kalkulatzeko, eta bolumenaren arabera ibilgailuaren kategoria sailkatzeko teknologia du. Baina badira beste prozesu osagarri batzuk ere, izan ere, beti ezin izaten dira zuzen bereizi pertsonak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak eta salgaiak garraiatzeko erabiltzen direnak.

Hori horrela, autobusek eta kamioiek antzeko bolumena dutenez, eta sailkapen okerrik ez egitearren, autobusen jabeen edo titularrei matrikula erregistratzea gomendatzen zaie, betiere erregistroa borondatezkoa izanik. Erregistro honen bidez, ibilgailuaren kategoria zuzena aplikatuko zaiela ziurtatzen da.

VIA-Trekin bateragarria den TAG gailua izanez gero, ez dago sisteman erregistratu beharrik. VIA-Trekin bateragarria den TAG gailurik izan ezean, ordea, ibilgailua/matrikula eta ordaintzeko era erregistratzea derrigorrezkoa izango da. Hori egin ezean, isunak ezarriko dira. Kanona ez ordaintzea arau-hauste administratiboa da eta 150 euro eta 1.999 euro arteko zigorrak ezar litezke.

4.1.4. SISTEMAREN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

AT sistema Gipuzkoako sareko 3 tokitan ezarri da, Irunen, Andoainen eta Etzegaraten hain zuzen. Irungo atetik igarotzean, Irun-Andoain zatia kobratuko da. Andoaingo atetik igarotzean, aldiz, Andoain inguruko 2 kilometro kobratuko dira eta Etzegarateko atetik igarotzean, Idiazabal-Etzegarate zatia kobratuko da.

Aurretik aipaturiko 3 tarteak modu honetan bereizten dira: alde batetik, A-15 Nafarroa-Gipuzkoa autobidea, Andoaingo Bazkardoko lotunearen eta Astigarragako AP-8 eta GI-41 errepideekiko lotunearen artean. Bestalde, N-1 Madril-Irun errepidea, Andoaingo hegoaldeko lotunearen eta Andoaingo iparraldeko lotunearen artean. Azkenik, N-1 Madril-Irun errepidea, Nafarroarekiko mugaren (Etzegaraten) eta Idiazabalgo hegoaldeko lotunearen artean.

Irungo geltokietatik zirkulatzeko duten noizbehinkako erabiltzaileei ordainketa errazteko, AT sisteman alta egiten ez badute hurrengo 24 orduetan, ibilgailu horrekin egindako edo egin litekeen ibilbidearen ordaindu gabeko zenbatekoa erabilitako ordainbidearen arabera kargatuko da.

4.1.5. TASAK ETA ORDAINKETA METODOA

Kanon-tarifak Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartzen dituzte urtero. Europako Zuzentarauak ez du jatorriaren araberrako beherapenik aplikatzen uzten. Erabiltzailearen ibilgailua Bidegin alta emanda badago, dagozkion fakturak jasoko ditu.

6. TAULA: Kanon-tarifak

TARTEAK	KM KOPURUA	ASTUNAK 1 * (€)	ASTUNAK 2 * (€)
N-1 Etzegarateko igarobidean	7,45	2,36	2,93
N-1 Andoaingo igarobidean	2,2	0,56	0,69
N-1/A-15 Andoain-Astigarraga artean	10,3	3,20	3,96
N-1 Irun-Etzegarate	Ibilbide osoa	5,56	6,89

ITURRIA: Egileak moldaturikoa, Bidegiren web orrialdetik

* ASTUNAK 1: 3,5 t (BGM) baino pisu handiagoa eta 12 t (BGM) baino txikiagoa.

* ASTUNAK 2: 12 t-ko (BGM) pisua edo handiagoa.

4.1.6. PORTIKOEN EZAUGARRIAK

Eitb-k jakinarazitako datuen arabera, AT sistema osatuko duten Irun, Etzegarate eta Andoaingo hiru portikoen ezaugarriak berdinak dira: 30 metro inguru neurtu eta 16 tona baino gehiago pisatzen duten plataformak dira. Portikoetako bakoitza matrikulak irakurtzeko eta argi infragorritz ibilgailuaren jarraipena egiteko 12 kameraz osatuta dago, 6 kamera izanik alde banatan.

Horrez gain, TAGak irakurtzeko eta ibilgailuak kokatzeko 12 antena ditu, 6 antena alde bakoitzean. Era berean, 6 detektagailuz osatuta daude, 3 alde bakoitzean, eta horiek ibilgailuak sailkatzeko detekzio bolumetrikoan oinarritzen dira. Ibilgailuak identifikatzeko kamerek, antenek eta detektagailuek jasotako datu guztiak Bidegiko egoitza nagusira bidaltzen dira, bertan datu horien etengabeko jarraipena egiten delarik.

Bidegiren kontrol zentru berrian, 8 pantaila berriren bidez kontrolatzen dira N-1 errepidean kokatutako hiru arkuak. Horrez gain, 25 pertsonen ardurak arkuetatik igarotzen diren kamioien datuak modu telematikoan jasotzean datza. AT izeneko sistema hau, VIA-T edota beste edozein TAG sistemekin bateragarria da, eta ibilgailu astuneren erabiltzaile bakoitzaren betebeharra izango da honelako sistemaren batean altan emanda egotea.

ITURRIA: Egileak moldaturikoa, Eitb telebistako Gaur Egun albistegitik, 2017/09/01 eta 2017/12/04, Nahieran atarian eskuragarri.

4.2. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BERTSIOA

Metodologia atalean aipatu bezala, nire hasierako asmoa ordainketa sistema honen arduradun nagusia den Aintzane Oiarbide elkarrizketatzea zen. Abiapuntuan, batez ere, hasiera batean gizarteari hain ezezaguna egiten zaion sistema honen berri izatea zen. Bertan, AT sistemak gure lurraldearengan izango dituen onurez edo abantailez hitz egitea zen asmoa, kontrako aldearekin sortutako gatazkaren nondik norakoak mahai gainean jarriz.

Sakonago aipatuko ditudan hainbat arrazoiengatik hasierako planteamendu hau moldatu beharrean aurkitu naizenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrialdean aurkitu dudana Aintzanearen elkarrizketa luze eta zabal batean oinarritu naiz atal hau osatze aldera. Bertan, web ofizial honek 2016ko uztailaren 17an argitaratu zuen elkarrizketa irakur daiteke, sistema indarrean jarri baino urte eta erdi lehenago, hain zuzen. Elkarrizketaren asmoa, bidesari berria ezartzearen arrazoi nagusiak eta Gipuzkoarengan izango duen eragin positiboari buruzko azalpen eta argibideak ematea da.

Aspalditik dator N-1 errepidean bidesaria ezartzeko asmoa eta azken urteetan era sakonean aztertu izan da aukera hau. Erabakia hartzeko unea eta erantzukizuna egungo legegaldian heldu da, Aintzane Oiarbide buru delarik. Ezagutu zenetik, erabaki honek hautsak arrotu ditu, kamioilarien sektorean bereziki.

Bide Azpiegituretako Diputatuak bazekien erabakia ez zela begi honez hartua izango euskal gizartean. Hala ere, denbora luzez burututako azterketa sakonek eta analisi juridikoek ziurtatu dute hartutako erabakia gipuzkoarrentzat onuragarria dela. Guztiaren gainetik, behin eta berriz nabarmentzen du ordainketa sistema hau tokiko garraiolariari ahalik eta gutxien eragiteko asmoarekin diseinatu dela.

Bidesari hau zergatik falta ote zen galdetuta, Aintzane dio azaldu beharreko lehenengo gauza Gipuzkoako errepideen funtzionamendua dela. Gipuzkoak, errepideen arloan, kompetentzia eskusiboa du, hau da, Estatu batek bezala funtzionatzen du. Hobeto ulertzeko, gipuzkoarrak dira beren errepideen jabe eta arduradun bakarrak, horrek dakartzan abantaila eta desabantaila guztiak barne. Hortaz, Gipuzkoako errepideak gipuzkoarrek ordaintze dituzte, inolako laguntzarik eta finantzazio gehigarrik gabe.

Finantzazioarekin lotuta, kontuan hartu beharreko beste puntu garrantzitsu bat Gipuzkoaren kokapena dela dio. Espainia eta Frantzia bezalako bi Estaturen mugan egoteak, Gipuzkoako errepideak etengabeko joan-etorrikoak bihurtzen ditu, eta horrek, zalantzarik gabe baldintzatzen du. Horrelako ezaugarriak dituen lurraldea, kanpoko faktoreei aurre egin ahal izango dion errepide-sarea diseinatzera eta kudeatzera behartuta dago. Gipuzkoak, hain eskualde txikia izanik, maila horretako trafiko bolumenak jasateko gai izango diren azpiegiturek edukitzeko izugarritzko esfortzu ekonomikoa egin behar du.

Finantzaziorako ezinbesteko behar horiei aurre egite aldera, 2003. urtean Bidegi sortu zen. Sozietate publiko honen helburu nagusia, Aldundiarekin batera eginiko gestioaren

bidez, bidesarrietan bildutako diru guztia errepideetara bideratzea zen. Errepideen kudeaketaz arduratzen den bitarteko enpresarik egongo ez balitz, Aldundiko diru-kutxara joango litzateke zuzenean diru guztia, eta ezingo litzateke bermatu diru hori zertarako erabili den. Bidegiren bidez, bidesarrietatik lortutako diru guztia, eskusiboki, errepidearen mantentze eta hobekuntzara bideratzen dela ziurtatzen da.

Aintzaneren esanetan, Aldundiaren aurrekontuekin soilik, Gipuzkoak ezingo luke gaur egungo errepide-sarearen kostua aurrera eraman, mantentze eta hobekuntza lanen kostuak izugarriak eta etengabeak baitira. Horregatik da hain beharrezkoa bidesarrietatik lortutako dirua zuzenean errepideetako gastuetara bideratzea.

Aurretik aipatu bezala, Gipuzkoa bere kokapenagatik eta garraiolarien joan-etorri etengabearen gurutzatzen den lurraldea izateagatik, kostuak asko handitzen dira, baina lurraldearen oreka mantentzeko ezinbestekoa da horrelako errepide-sare bat edukitzea.

Gipuzkoak bi aukera eskaintzen ditu ibilgailuek beren joan-etorriak egin ditzaten: lehena, eraiki zenetik ordaindu beharrezkoa izan den autopistaren bidez, hau da, AP-8 eta AP-1. Bigarrena, aldiz, azken urtera arte dohakoak izan diren A-15 eta N-1 errepideen bidez. Ahalmen handiko errepide hauek egunez egun ibilgailuen karga handiak jasaten dituzte, eta horrez ondorioz, ezinbestekoa da egoera onean mantentzea eta beharrezkoak diren hobekuntzak egitea.

2018. urtearen hasiera arte, N-1 errepidea dohakoak izanik, auto ilara amaigabeak eguneroko kontua izan dira. Jasaten duen ibilgailu kantitateari aurre egiteko, errepideak prest egon behar du, hobekuntza etengabeak behar ditu eta herritarrentzat segurua izan behar du. Tamalez, errepide honen eragin negatiboak inguruko herri txikiek eta bertako trafikoei pairatu izan dituzte. Hobekuntza ugari behar dituen errepidea izanik, horrek dakartzan ondorio kaltegarrienak istripuen arriskua areagotzea, segurtasun eza eta kutsadura dira.

N-1 errepidearen kontserbazioa, AT sistema abian jarri arte, gipuzkoar guztiek ordaintzen zuten zerga bidez, Aldundiaren aurrekontuetatik. Egunero milaka eta milaka ibilgailu igarotzen ziren ezer ordaindu gabe, hau da, dohakoak zela aprobetxatuz. Horrek, zalantzarik gabe, errepidean kalte handiagoak dakartza, gehiago hondatzen da, eta kostuak eta kutsadura izugarri areagotzen dira.

Aintzaneren esanetan, bidesaria jartzearen aukera mahai gainean jarri zenean bi alternatiba zituzten; bidesari berria ezarri edo kamioien (ibilgailu astunen) zirkulazioa debekatu N-1 errepidean. Bidesariaren aldeko apustua, hein handi batean, finantzazioaren arazoa konpontzearen egin zuten. Era horretan, Aldundiaren aurrekontutik N-1 errepidera bideratzen zen diru zatia betebehar politiko, sozial eta ekonomikoetara bideratu ahal izango da aurrerantzean. Kamioien zirkulazioa debekatzeko hautua egin izan balute, aldiz, finantzazioaren arazoak bere horretan jarraituko zukeen, ez litzatekeen ezer konponduko.

Europako hainbat herrialdetan gertatzen den bezala, Gipuzkoan ere “erabiltzeagatik ordaindu” filosofia aplikatu nahi izan da. Helburua errepidea zeharkatzen duen ibilgailu

astun orok ordaintzea da, baina batez ere, atzerritarrengan jartzen du arreta berezia. Agintari jeltzaleak berresten du, ordainketa sistema tokiko garraiolariari ahalik eta gutxien eragiteko diseinatu dela. Hasieratik finkaturiko helburu nagusienak gipuzkoarrengan eragin txikia izatea eta sistema iraunkor eta jasagarria izatea izan ziren.

Gipuzkoarrengan ahalik eta eragin txikiena izatearen jokoan, ordea, gerora Aldundiari hainbeste buruhauste ekarri dizkion diskriminazioaren gaia sartzen da. Atzerritarrekiko diskriminazio eza oinarritzako puntua da testuinguru europarrean. Zuzentarau europarrek diotenari jarraiki, sistemaren legalitatea bermatzeko asmoz, txosten juridiko bat eskatu zuten. Aukera guztiak aztertzen saiatu ziren arren, bertan argi geratu ziren sistemaren mugak.

Diskriminazioaren tranpan erortzea ez da kasualitatea. Aldundiak eskatutako txosten juridiko horretan, jurisprudentzia handia ikusi zen salbuespenezko egoerak ezarri nahi izan zituztenen artean. Alemaniaren eta Austriaren kasuan, esaterako, bere garaian ezarri zituzten ordainketa sistemetan atzerritarrak diskriminatzen zirenez, Europatik ezezko garbia jaso zuten.

Tokiko garraiolariari ahalik eta gutxien eragiteko beste aukerarik ez ote zegoen galdetuta, Aintzanez bi bide posible zeudela azaltzen du. Bata, gipuzkoar guztiak ordaindu beharreko zergak igotzea eta Aldundiaren aurrekontuetako zati bat errepidearen finantzazio beharretara bideratzea. Bestea, berriz, Europar Batasunak ezarri nahi duen joera martxan jartzea, hau da, bidesariaren bidez erabiltzaileak ordaintzea.

Zentzu horretan, tokiko garraiolariari ahalik eta gutxien zein zentzutan eragiten zaien argitzen du. Bere esanetan, Irun eta Etzegarateko arkuek mugatzen duten ibilbide guztian zehar, arku bakarra dago, Andoainen ezarritakoa hain zuzen. Modu horretan, tokiko garraiolariak jasan beharreko eragina ahalik eta txikiena izatea nahi dute. Horregatik, sistema honen bidez, batez ere, ibilbide osoa egiten duten garraiolariak ordaindu beharko dute gehien, hau da, Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

Europako 1999ko Zuzentarauari jarraiki (2006 eta 2011 urteetan moldatua), ibilgailu astunen trafikoa arautzeko modurik bidezkoena, erabiltzen duenak ordaintzea da. Kutsadura eta trafiko bolumenak erregulatzea helburu izanik, ardatz transeuroparretan derrigorrez ibilgailu astunentzako kobru-sistema bat egon behar dela hitzartu zuten bere garaian.

Hori horrela izanik, Zuzentarauak dioenaren arabera, Gipuzkoan ezarri dena bezalako kobru-sistemek derrigorrezkoak izan beharko lukete Europar Batasuneko kide diren herrialde guztietan, baina legea betetzen ez dutenek oraindik ez dute zigorrik jasotzen. Horren adibide da Estatu espainiarraren kasua, non momentuz Gipuzkoa izan den era honetako sistema martxan jarri duen lehen probintzia. Hala ere, Europar Batasuna lege berri bat prestatzen ari da, eta dirudienez, araudia betetzen ez duenak zigorrak izango ditu.

Hortaz, agintari jeltzalearen esanetan, esan daiteke arrazoi bat baino gehiago izan direla Gipuzkoan ibilgailu astunei bidesaria ezartzearen erabakia bizkortu dutenak. Batetik, argi dago Zuzentarau europar honek erabakia azkartu egin duela, eta Gipuzkoak “etxeko lanak” azkar egin dituela. Bestetik, errepideen errealitatea aztertzean aipatutako trafikoaren eta kutsaduraren arazoak konpontzeko asmoak eraman ditu erabakia hartzera. Eta azkenik, finantzazio arazoak eta Aldundiaren aurrekontuak arindu beharrak zerikusi handia izan dute gai honetan guztian.

4.3. GARRAIOLARIEN BERTSIOA

Errepide bidezko garraioaren sektoreari dagokionez, garraiolarien bertsioa ezagutzea interesgarria iruditu zait, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bertsioarekiko kontrajarria baita, eta nire iritzi propioa garatzen eta ikuspegi ezberdinak uztartzen lagunduko baitit. Euskal Herriko garraiolarien ordezkari gisa, bertako sindikatuaren ikuspuntua ezagutzean zentratu naiz, Hiru sindikatuan, alegia. Informazio-iturri gisa, sindikatuaren beraren web orrialdea erabili dut, oso modu ordenatu eta ulerterrezean azaltzen baitituzte beraien argudioak.

Hiru garraiolarien Euskal Herriko sindikatua da, eta bere jarduerak Euskal Herrian bizi eta bertan lan egiten duten garraiolari autonomoen eskubide sozial, politiko eta ekonomikoak defendatzean datza. Garraiolari guztien lan baldintzak hobetzea dute helburu, urteetan zehar defendatu dituzten ideiei jarraiki.

Azken urteotan, sindikatuak garraiolari autonomoaren garrantzia azpimarratu du kooperatiba faltsuak salatuz, sektorearen pobrezia areagotzen duten enpresa modeloei aurka eginez, azpiegituren birrordainketen kontrako jarrera garbia erakutsiz eta garraioaren truke ordaindu beharreko prezio duinak eskatuz.

Gaur egun sektorea bizitzen ari den egoera larria kontutan izanik, egoerari buelta emateko ezinbestekoa da premiazko neurriak hartzea eta horiek lehenbailen martxan jartzea. Sektorearen egoera latzaren arrazoiaren artean, krisi ekonomikoaz gain, erakunde publikoen konpromezu falta eta utzikeria nabarmentzen ditu sindikatuak. Horren erakusle nagusia, krisi hasieraz geroztik EAEko 1200 garraio enpresa desagertu izana da, horien artean gehiengoa autonomoak eta kooperatiba txikiak izanik.

Hori dela eta, sindikatuak alderdi politikoen borondatea eskatzen du behin eta berriz; batetik, egungo garraioaren sektorearen biziraupena lortzeko, eta bestetik, Euskal Herriko errealitate ekonomiko-industrialera eta gizartearen beharretara egokitzen den garraio-sare bat bermatzeko.

Sindikatuaren esanetan, nahiz eta egoera oso larria den, badirudi sektoreari laguntzak eman beharrean trabak besterik ez zaizkiola jartzen, eta horrek egoera hare gehiago kaltetzea besterik ez dakar. Horren adibide dira, esaterako, errepideen erabiltzaileek derrigorrez ordaindu behar dituzten bidesariak.

Sindikatuak gaineratzen duenez, errepideak azpiegitura publikoak diren neurrian, zerga bidez ordainduak izan behar dute bere osotasunean. Onartezina deritzote errepideak finantzatzeko eta mantentzeko dirurik ez dagoenez, bidesariak ezartzea, eta gainera, horien erabilera sektore bakar batetara mugatzea.

Azken urteetan indarra hartzen joan da bidesariak jartzearen aurkako mugimendua, "Peajerik ez" lelopean, hainbat mobilizazio eta elkarretaratze egin dituelarik. Aldarrikatu nahi izan duten mezua argia da: "Errepidean ibiltzea ez da aukera bat, gure lana da eta gure lan egiteko eskubidearen alde borrokatzen dugu. Ez ditugu azpiegituren birrordainketak, berrordainketak eta bidesariak bezalako zerga diskriminatzaileak onartzen".

Hiru sindikatuaren web orrialdearen parte den “Garraiolariok” aldizkariko 2017ko abuztuko alean, modu argi eta sinplifikatu batean uler daiteke garraiolarietako bidesariaren aurka duten ikuspuntua eta beren eskubideak defendatze aldera ematen dituzten argudioak. Jarraian, esanguratsuenak bildu ditut:

Batetik, errepide publikoen eraikuntza eta mantentzearen finantzaketak publikoak izan behar dute. Ezin dituzte, finantzatu ezin direlako, bat-batean ordainketakoetan bilakatu, eta hare gutxiago, sektore bakar batek ordainduko dituela erabaki. Ez dituzte azpiegitura publikoen birrordanketak ordaintzen, zuzenean edo zeharka herritar guztiak erabiltzen baitituzte.

Bestetik, erraza da kanpoko garraiolarietako gehiago ordainduko dutela sinestaraztea, baina gezurra da. N-1etik gehien igarotzen diren garraiolariak hemengoak dira eta azkenean, igarotze maiztasunagatik gehien ordainduko dutenak bertakoak izango dira. Honela, kanpoko garraiolari batek behin ordaintzeko, Irun-Etzegarate tartea, adibidez, bertako garraiolari batek ehundaka euro ordaindu beharko ditu Etzegarateetik egunero igarotzeagatik edo Andoaindik behin eta berriro joan-etorriak egiteagatik.

Gainera, zirkulazioa N-1etik AP-1era desbideratuko dela ez da egia. Garraiolari orok, askotan jendearentzat ezkutuan dauden zerbitzu asko behar izaten ditu, esaterako, hornitegiak edota tailerrak. Zerbitzu hauek guztiak, gaur egun, N-1ean daude, eta ez AP-1ean.

Horrez gain, Gipuzkoako Aldundiak N-1eko bidesaria ibilgailu astunentzat bakarrik dela dio. Era berean, hasiera batean, kanpokoek bakarrik ordainduko zutela ere bazioten. Gauzak horrela, sistema martxan egonik, zaila egiten da sinestea etorkizunean N-1a igarotzeagatik ibilgailu guztiak ordaindu beharko ez dutenik.

AT sistema martxan jarri eta lehenengo astean bertan, komunikabideek zenbait kamioilariren iritziak hartu nahi izan zituzten, eta normala denez, alde guztietako iritziekin topatu ziren. Batzuk sistema martxan jartzearen alde zeuden bitartean, beste batzuk oso aurka azaldu ziren. Hiru sindikatuaren ikuspuntuaz gain, interesgarria iruditu zait elkarrizketatutako zenbait garraiolariaren iritzi esanguratsuenak biltzea, El Diario Vasco eta Eitb-ren elkarrizketetan oinarrituz.

Iritzi mota ezberdinak jaso zituzten atzerriko eta Estatuko gidarien artean. Garraiolari batzuek ontzat ematen zuten bidesariaren kobrua, European ere ordaintzen dutela argudiatuz. Estatu guztietan, tasa baten bidez ordaintzen dela zioen garraiolarietako batek. Beste batek, aldiz, Gipuzkoan bakarrik ez, leku guztietan aplikatu beharko litzatekeela zioen.

Gehiengoak, ordea, ez zuen begi onez ikusten bidesariaren ezarpena. Etxeruntz zihoan garraiolari austriar bati galdetuta, lehenengo aldia zen N-1 errepidea erabiltzeagatik ordaintzen zuela, eta orain arte hortik pasatakoan ez zuenez ezer ordaintzen, oso aurka agertu zen.

Kamioilari bulgariar baten iritziak, ez da posible Gipuzkoatik igarotzen diren errepide guztien erabilera ordaindu behar izatea, eta herrialde guztietan dohako errepide

alternatiboak daudela dio. Espainian zentratuz, adibide bat jartzen du mahai gainean. “Valentzian A-3 errepidea dohakoa da eta AP-3 erabiltzeagatik ordaindu egin behar da. Gipuzkoan N-1 eta AP-1 ditugu; zergatik ordaindu behar dugu bietan?”.

Garraiolari donostiar batek, kobru-sistema honen ezarpena erakunde politikoen hankasartze larritzat jo du, sektorea izugarri kaltetzen duela argudiatuz. Bere ustez, ibilgailu astunen garraiolariak nahikoa zerga ordaintzen dituzte beren depositua erregaiez betetzen duten bakoitzean. Horren adibide gisa, Euskal Herrian erregaia atzerrian baino merkeagoa denez, Frantziatik datorren garraioak, behin muga igaro ondoren, hemen betetzen du depositua, bai etortzerakoan, bai joaterakoan ere. Hortaz, bere iritziz, nahikoa diru biltzen dute.

Gainera, ibilgailu astunek Gipuzkoako errepide-sarea gehiago kaltetzen dutenaren hipotesia okerra dela dio, onurak ere handiak baitira. “Zenbat autok gastatzen dute erregaiean 4000 euro hilean? Zenbateko horren zati handi bat zerga moduan ordaintzen dira”.

Kamioilari asturiar batek dioenaren arabera, Frantzian duela bi urte Gipuzkoan ezarri diren arkuen antzekoak kokatu ziren. Bertan, ordea, oraindik ez dituzte martxan jarri arku horiek, dirudienez hobeto pentsatzen ari baitira. Hemen ere, hasiera batetik berdina egin beharko litzatekeela dio.

Horrez gain, hasiera batean arriskuak ere ikusten zizkioten sistemari. Garraiolari batek zioenez, “askoz hobeago izango litzateke kobratuko ez balute”, eta N-121 errepidea zen aipatzen zuen alternatiba, lehendik ere nahiko arriskutsua den bidearen kalterako. Iritzi berekoak ziren tokiko garraiolariak ere. Beste baten hitzetan, “alternatiba batzuk bilatzen joango dira, N-121 esaterako, baina beste bat ere badago, kanpotarrek agian ez dutela ordainduko hemendik pasatzeagatik, beste leku batzuetan hori gertatzen baita”.

AT sistemak N-1 errepidea egunero igarotzen duten 12.000 kamioilariri baino gehiagori eragingo die, eta Hiru sindikatuaren esanetan, Gipuzkoako garraiolariak izango dira bidesari sistema honekin kaltetuenak. Orokorrean, kamioilariak ez ditu arritu neurriak, baina hala ere kexu dira, beti beraiengan jartzen omen delako zama guztia.

4.4. IBILBIDE JUDIZIALA ETA FORU ARAU BERRIA

Bidesari berriaren ezarpenak garraiolarien artean hautsak harrotu baditu ere, zalantzarik gabe 2018. urtean jasotako albisterik aipagarriena EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren sententziarena izan da. Hasierako foru araua baliogabetu zutenetik, lehendik luzea zen soka hare gehiago luzatu da.

Gertakariak eta polemika, gaur egun oraindik ere etengabekoak izaten ari dira bi aldean artean: garraiolarien sektoreak, geroz eta indar handiagoarekin jarraitzen du berea defendatzen, sententziak arrazoia eman diela sentitzen baitute. Foru Aldundiaren aldeak, aldiz, epaia errespetatzen duen arren, ez dator bat epaiak dioenarekin, eta horri erantzuteko helegiteaz gain, foru arau berria osatu eta aurkeztu dute.

1) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren sententzia:

Bidesariaren inguruan hasiera batean sortutako zarata baretu zela zirudien, eta gainera, Batzar Nagusietan oposizioko alderdi politikoek ez zuten aurkako boturik eman foru araua onartu zenean. Hori gutxi balitz, 2018. urtearen hasieran Estatutik deituriko greba deialdiari bizkarra eman zion Gipuzkoako garraiolarien sektoreak.

Inork gutxik espero zuen, ordea, trabarik handiena justiziaren bidetik etorriko zenik. Sistema martxan jarri bezain pronto, Garraiolari Elkartearen Espainiako Federazioaren auzi eske bat tarteko etorri zen azken hauei arrazoia emango zien behin-behineko erantzuna.

AT sistema berri hau martxan jarri eta hiru hilabete eskasera, arazo larri batekin aurkitu ziren Gipuzkoako Foru Aldundian; 2018ko apirilaren 9an, justiziak N-1 errepideko bidesari sistema behin-behinekoki bertan behera uztea erabaki zuen ezustean, Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartutako foru araua ezerezean utziz.

Bidesarian bertan, Europar Batzordeko arauen aurkako zeharkako diskriminazio bat zegoela argudiatu zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. Sententziaren arabera, lurraldea zeharkatzen duten garraiolariak ezin zaie Andoaingo arkutik pasatzen diren tokiko garraiolariak baino gehiago kobratu.

Laburbilduz, hori izan zen sententziak jasotzen zuen Auzitegi Nagusiaren interpretazioa, batzuen pozerako eta besteen ezuste eta atsekaberako. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidesaria kobratzen jarraituko zuela eta behin-behineko sententzia horren aurkako helegitea jarriko zuela baieztatu zuen.

Bide Azpiegituretako Foru Diputatua den Aintzane Oiarbidek esandakoaren arabera, "sistemak Europar Batasunak eskatutako berme juridiko guztiak betetzen ditu". Garraiolariak, berehala hasi ziren ordura arte kobratu zieten dirua itzultzeko erreklamazioak egiten.

2) Helegitearen aurkezpena:

Aldundiak ez zuen sententziak zioenari inolako arrazoirik emateko asmorik, eta denborarik galdu gabe hasi zen Auzitegi Gorenaren aurrean aurkeztu beharreko helegitea prestatzen. Aldundiaren arabera, justiziaren interpretazioa okerra izan zen, foru arau honek atzerritarrek nahiz gipuzkoarrek bidesari berdina ordaintzea bermatzen baitzuen, erabiltzen zituzten tarteen arabera.

Auzitegi Nagusiaren interpretazioaren arabera, ordea, tarteen banaketari eta kanona kobratzen zen puntuen kokapenari erreparatuz, batik bat probintziara sartzen eta irteten ziren garraiolariak ordaindu beharko zuketeen bidesaria, eta horiek, hein handi batean, atzerriko garraiolariak izango ziratekeen. Modu horretan, atzerritarrek bertakoek baino kalte handiagoa jasango zuketeen, beren ibilbidean derrigorrez 3 arkuak zeharkatuz.

Bien bitartean, bidesariak denbora honetan zehar bere bidea jarraitu du Irun, Andoain eta Etzegarateko arkuetan, hauek gurutzatzen dituzten ibilgailu astunei tarifakazio sistemak agindu bezala kobratuz. Horretarako, sententzia oraindik behin-behinekoa dela argudiatu izan du Aldundiak, epaitegien behin betiko erantzunaren zain. Ikusteko dago Auzitegi Gorenak Aldundiaren helegitea berretsiko duen ala foru araua berriro ere atzera botako duen.

3) Behin-behineko neurriak:

Normala denez, garraiolariak honen aurrean gogor erantzun zuten, sententziak arrazoia eman ziela defendatuz. Berehala hasi ziren ordura arteko hilabeteetan kobratu zieten diru guztia itzultzeko erreklamatzeko eta bidesariaren kobrua eteteko eskatzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, hasiera hasieratik garbi erakutsi zuen bidesariarekin aurrera jarraitzeko intentzioa. Epaia behin betikoa izan arte, hiru arkuen funtzionamenduak bere horretan jarraituko zuela argi adierazi zuen.

Hiru garraiolarien sindikatuko idazkatzari nagusia den Esteban Muruamendiarazek azaldu zuenez, "kobru-sistema honek tokiko garraiolarien aurka diskriminatzen du, eta ez alderantziz, egunean hainbatetan pasa behar izaten baitute arkuetatik nahitaez".

Gauzak honela, garraiolariak oraindik ez dute dena galduta ikusten. Garraiolari Elkarteen Espainiako Federazioak EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean behin-behineko neurriak eskatzea aztertuko zuela iragarri zuen. Sententziaren albisteak ezagutu zenetik, bidesariaren kobrua etetea aldarrikatzen dute behin eta berriz, gutxienez epaia irmoa izan arte.

Auzitegi Gorenak hasierako sententzia berretsi eta garraiolariari arrazoia emango balie, ordea, ondorioak hare eta larriagoak izan litezke Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat. Orain arte bidesarietan jasotako diru guztia itzuli behar izanez gero, 2018 osoan biltzea espero dituen 12 milioi euro inguru bueltatzeko arriskuan aurkitu daiteke.

Lehenengo foru araua iragana da. Auzitegi Gorenak erabakiko du Aldundiaren helegitea onartzen duen edota EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren sententzia berresten duen. Horrez gain, Aldundiak erantzun honen baitan erabaki beharko du orain arte bildutako diru guztia garraiolarietara itzuli beharko dien ala ez, hauek hasieratik eskatu bezala.

Bien bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du inongo momentutan mahai gainean jarri bidesariaren kobrua behin-behinean eteteko aukera, eta hare gutxiago sistema hau etorkizunean desagertzeko aukera. Aldundiaren ustetan, "erabiltzeagatik ordaintzea" da Gipuzkoak jarraitu behar duen eredu bideragarri bakarra. Europan erreferentzia diren herrialdeak jarri ditu adibide gisa, non ahalmen handiko errepideen %90 kobru bidezkoak diren.


"Foru arau berria ardura politikoaren ondorioa da, AT sistemaren etorkizuna bermatzeko".

Aintzane Oiarbide, 2018/09/13

Hori gutxi balitz, Foru Gobernuak ez du nahi, inondik inora, bidesariaren auzia epaitegien eskutan geratzea. Gipuzkoaren oraina eta etorkizuna bermatzeko bidean, legealdi honetako proiektu nagusienetako bat ziurtatzea ezinbestekoa ikusten du. Hainbesteko garrantzia izanik, gai estrategiko gisa jotzen duten proiektu honi irtenbidea eman nahi izan die legealdia amaitu aurretik.

Gauzak honela, bidesariaren etorkizuna ziurtatzeko helburuarekin foru arau berri bat osatu dute, 2019. urtearen hasieran indarrean jarriko dena. Bertan, Aldundiak zenbait aldaketa egingo ditu errepide tarteei eta prezioei dagokienean, batez ere, diskriminazioaren interpretazioa saihesteko asmotan.

4. IRUDIA: Foru Arau berriaren aldaketak



ITURRIA: El Diario Vasco

Berriaren web orrian aurkituriko 2018ko uztailaren 27ko albisteari jarraiki, ondorengoak dira epaiari egokitzeko asmoz Gipuzkoako Foru Aldundiak proposaturiko aldaketa nagusiak:

Foru arau zaharraren arabera, Astigarraga eta Irún arteko 10,3 kilometro kobratzen dira Irungo arkuan: 3,20 euro kamioi txikiei (3,5 eta 12 tona artekoak), eta 3,96 euro handiei (12 tonatik gorakoak). Proposamen berriaren arabera, bertan mantenduko da Irungo arkuak arrazoi teknikoengatik, baina ez ditu kobrantzak egingo, hau da, baliogabetua izango da. Horren ordez, Astigarragan beste arku bat jarriko litzateke, Astigarraga-Andoain arteko 3,19 kilometroko zatia dagokiona: 0,70 euro ordainduko litzukete kamioi txikiek, eta 0,89 euro handiek.

Andoaingo arkuan 2,2 kilometroko zatia kobratu ohi izan da: 0,56 euro txikiek, eta 0,69 euro handiek. 5,37 kilometroko zatia kobratzea proposatzen du foru arau berriak (Andoain-Urnieta edo Andoain-Lasarte). 1,18 euro ordainduko lukete kamioi txikiek, eta 1,50 euro handiek. 2,2 kilometro ordaintzen jarraituko dute Andoain inguruan soilik ibiltzen diren kamioiek; hori kobratzeko, arku txikiago bat ezarriko dute Andoaingo sarrera-irteeretan.

Etzegarateko arkuan ez litzateke aldaketarik egongo. Idiazabaldik Etzegaratera, 7,45 kilometroko zatia kobratzen zaie kamioiei: 2,36 euro txikiei, eta 2,93 euro handiei. Irundik Etzegaraterako ibilbide osoa egiten dutenei, aldiz, proposamen berria aurrera jarraitzea merkeago aterako zaie: 5,56 eurotik 4,24ra jaitsiko zaie kamioi txikiei; 6,89 eurotik 5,32ra handiei.

7. TAULA: Kanon-tarifa berriak

TARTEAK	KM KOPURUA	ASTUNAK 1 (€)	ASTUNAK 2 (€)
Etzegarate	7,45	2,36	2,93
Astigarraga	3,19	0,70	0,89
Andoain	5,37	1,18	1,50
Andoain-Andoain	2,20	0,48	0,62
Irun-Etzegarate	Ibilbide osoa	4,24	5,32

ITURRIA: Egileak moldaturikoa, Berria egunkariko artikulutik (2018/07/27)

4.5. BILAKAERA

2018ko urtarrilaren 9an indarrean jarri zenetik, gorabehera asko izan ditu kobru-sistema honek. Denboran zehar sakonduz joan diren gertakari horiek komunikabideetan izan duten oihartzuna nabarmena izan da, zalantzarik gabe. Adibide bezala, El Diario Vasco egunkaria aztertzea erabaki dut, gai honi garrantzia gehien eman dion hedabidea irudituz baitzait eta behin baino gehiagotan argitaratu baititu AT sistemari buruzko albisteak lerroburu gisa.

Jarraian, prentsa idatzian argitaratuak izan diren artikulak zerrendatuko dira taula batean, denboran zehar kronologikoki ordenatuta. Egunkariko titularra euskaratuta eta albistearen deskribapen labur bat gehituko dira bertan. Ideia nagusi horien bidez, euskal gizarteko gatazka honen bilakaeraren nondik-norakoak identifikatzea da taula honen helburu nagusia. Bibliografiako "Eranskinak" atalean, artikulua bakoitza eskuragarri egongo da formatu digitalizatuan, xehetasun gehiagorekin aztertu nahi izanez gero.

8. TAULA: AT sistemaren bilakaera

Nº	DATA	TITULARRA	DESKRIBAPENA
1	17/05/12	"N-1 errepidea zeharkatzen duten kamioien %56 atzerritarrak direla baieztatu du AT sistemak".	Ibilgailu atzerritarren artean, gehiengoa (%24,2) portugaldarra da. Estimazioen arabera, %16-ak identifikazio arazoren bat izan du. Bidesariarekin urteko 9 milioi biltzea espero da: 6 N-1 errepidearen mantenturako eta 3 sistema beraren kostuetarako.
2	18/01/02	"Garraiolarien lan-uzteak N-1-eko bidesariaren kontrako presioa neurtuko du gaurtik aurrera".	Presio neurri gisa, Estatuko garraiolarien elkarteak biltzen dituen erakundeak (CNTC) greba deialdia egin du. Hala ere, sektorearen zati gipuzkoarrak uko egin dio deialdiari, bertako garraiolarien kalterako izango dela argudiatuz.
3	18/04/14	"EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJPV) N-1-eko kamioientzako bidesaria ezerezean utzi du, martxan jarri eta hiru hilabetera".	Sententziak argudiatzen duenez, zeharkako diskriminazio bat dago bertako garraiolarien eta atzerritarren artean. Aldundiaren helburuetako bat Gipuzkoako sektorea ahalik eta gutxien kaltetzea zenez, Andoaingo arkuaren prezioak merketu zituen, diskriminazioaren arazoak jabetu gabe. Hortaz, eskualde osoa gurutzatzea askoz ere garestiagoa da, atzerritarren kaltetan.
4	18/04/15	"Irabazi dugu, utz dezatela kobratzeaz".	Garraiolarien ustez, Aldundiak ez luke sententziaren aurrean helegiterik aurkeztu beharko. Gaia argitzen den bitartean, behin-behinekoki, bidesariaren kobrua bertan behera uzteko eskatu dute aho batez.
5	18/04/17	"Andoaingo arkuaren bidez bidesariaren diskriminazioa saihestu zuela uste izan zuen Aldundiak".	Legedia txostenek ohartarazi zuten, kanonak ez zuen derrigorrez Europako Araudia bete beharrik. Auzitegi Gorenaren aurrean aurkeztu beharreko helegitea prestatzen ari dira, sistemaren inguruko interpretazioa aldatuko delakoan.
6	18/05/23	"N-1-eko bidesariak aurreikusitakoa baino %10 gehiago bildu du lehenengo hiruhilekoan".	Erritmo bizian doa diru bilketa, hilabeteko milioi batetik gora eskuratuz. Joera mantenduz gero, eta auzitegietatik ez bada behin-behineko neurririk heltzen, urteko diru-sarrerak 12 milioi ingurukoak izango lirateke.

7	18/05/29	“Aldundiak gaur aurkeztuko du N-1-eko bidesariaren ezeztatzea saihesten ahalegintzeko helegitea”.	Datu errealak mahai gainean jarriko ditu zeharkako diskriminaziorik ez dagoela argudiatzeko eta auzitegiaren interpretazioa okerra dela ziurtatzeko. Diskriminazioa ekiditeko Andoaingo arkuaz ezarri zutela gaineratu dute.
8	18/06/01	“N-1-eko bidesariak urte osorako aurreikusitakoaren ia erdia bildu du lau hilabetean”.	Urte osorako eginiko kalkulu estimatua 8,7 milioikoa izanik, apirilaren 30 arte 4 milioi bildu ditu. Estatuko garraiolariak gaineratu dute, Justizia Auzitegi Gorenak Aldundiak ezarritako helegitea onartzen badu, behin-behineko neurriak hartuko dituztela.
9	18/07/21	“Aldundiak N-1eko bidesariaren zati eta prezioetan moldaketak egin ditu diskriminazioa saihestearren”.	Gobernuaren lehentasuna proiektu honen etorkizuna bermatzea da, sententziaren zain geratu gabe. Horretarako, Arau Foral berri bat osatzen ari da, zeinak kamioien eskualde barneko joan-etorria garestituko duen. Andoaingo arkuaz 2,2 kilometro kobratzetik 5,37 kobratzera pasako da. Horrez gain, Astigarragan arku berri bat eraikiko da, Irungoa baliogabe utziz.
10	18/07/25	“Gipuzkoa barneko ibilbide osoaren kostua bikoiztu eta probintzia zeharkatzea %23 merkeagotu da”.	Aldaketa honek Auzitegi Nagusiaren diskriminazioaren interpretazioa saihestea du helburu. Hala ere, atzerritarren %72 soilik Andoaingo arkutik igarotzen da, ibilbide osoa egin gabe. “Erabiltzeagatik ordaintzea” defendatzen da, Europako ahalmen handiko errepideen %90-etan egiten den moduan.
11	18/07/26	“Guitrans patronalaren arabera, N-1-eko bidesari berriekin bertako enpresak dira kaltetuenak”.	Patronalak dio diskriminaturik handiena garraiolari gipuzkoarra dela eta arau foral berriekin kostuak handituko direla. Garraiolariak jada azpiegituren mantenturako zergak ordaintzen dituztela baieztatzen dute. Garraiolari Elkartearen Espainiako Federazioaren esku utzi ditu bidesari berriaren “inposaketaren” aurka garatuko diren ekintzak.
12	18/09/04	“Aldundiak N-1-eko kamioientzako bidesariaren foru arauaren proiektu berria onartu du”.	Gobernu foralak onartu du foru arau berria, orain Batzar Nagusien txanda izango da lehentasunezko gai honen inguruan eztabaidatzea eta erabakiak hartzea.
13	18/09/14	“Ogasunaren estimazioen arabera, bidesariaren birmoldaketa 5 milioi inguru kostako da”.	Aldundiaren aurrekontuetan ondorioz ez duela izango eta Bidegiren jardueran “efektu positibo” bat izango duela ziurtatu du. Aldaketa nagusia Astigarragan arku berri bat ezartzean eta Irungo arkuaz baliogabetzean oinarrituko da.
14	18/10/09	“Aldundiak 2019.urtean ezarritako den bidesari berriaren tramiteak azkartu ditu”.	Lehentasunezko gaia izanik, Batzar Nagusietan bihar bertan onartuko da foru arau berria, 2019.urtean ezarritako den bidesari berria ziurtatuz. Tramitazioaz gain, Aldundiak bi arku berri ezarri beharko ditu, Astigarragan eta Andoainen. Hala ere, ezinbestekoa izango da Europar Komisioaren onarpena eta diskriminazio ezaren inguruan aipamenik egiten duen edo ez ikustea.

15	18/10/11	“Batzar Nagusiek N-1-eko bidesariaren jarraipena bermatu dute”.	EH Bildu eta PP foru arau berriaren aurka agertu dira, gai honen inguruan Batzar Nagusietan dagoen haustura nabarmena agerian jarriz. Hala ere, PNV eta PSE gehiengoa direnez, tramitazioek aurrera jarraitzeko bermea dute.
16	18/10/20	“N-1-eko bidesaria urte osorako aurreikusitakoa biltzetik gertu dago 8 hilabetean”.	Aurreikuspen guztiak gaintu eta estimatutakoa baino %30 gehiago bildu du. Andoaindik igaro diren ibilgailuen %82,7 atzerritarrek izan dira, eta horrek agerian jartzen du beraiek direla karga handiena jasaten dutenak. 2019tik aurrera, N-1 errepidearen hobekuntza eta mantenu lanak aurrekontuetatik irtengo dira, hau da, gipuzkoarrok ez dugu zergarik ordaindu beharko errepide honen finantzaketarako.
17	18/11/07	“Bidesari berriak gaur jasoko du berme juridikoa eta maiatzerako martxan egongo da”.	Batzar Nagusiek onartuko duten foru arau berriak, Justizia Auzitegi Nagusiak ezerezean utzitako foru araua ordezkatzeko du. Europaren oniritziaren zain dauden arren, araudia berriaren aldeko dokumentazioa laster jasotzea espero dute. Aldundiak Astigarragan (A-15) kokatzea aurreikusitako arkuaz gain, beste arku txiki bat ezarriko du Andoainen.
18	18/11/08	“Alderdi Popularra izan da bidesari birmoldatuaren aurka bozkatu duen bakarra”.	Batzar Nagusietan egin den bozketan, foru arau berria onartu dute PNV eta PSE-k osatzen duten gehiengoari esker. EH Bildu eta Podemos abstenitu egin dira, Gobernuaren jarrera gogor kritikatu. Alderdi Popularraren iritziz, foru arau berriak tokiko garraiolariak hare gehiago kaltetzen ditu, atzerritarren mesedetan.
19	18/12/14	“Garraiolariek foru arau berriaren aurka ere helegitea aurkeztuko dute”.	Estatuko garraiolarien elkarteak biltzen dituen erakundeak (CNTC) dio tarteen eta tarifen aldaketek AT sistemaren izaera diskriminatzailea ezkutatu baino ez dutela egiten. Bidesari berria Gobernuak erabakitzen duenean jarriko da martxan, betiere maiatzaren 15a baino lehen.
20	18/12/15	“Markel Olanok epaileen irizpideak alde batera utziz, bidesaria legezkoa dela aldarrikatu du”.	Foru Gobernuaren ustez, errepideetako datu errealek diskriminazioaren hipotesia ezerezean uzteko balioko dute. Hala ere, diskriminazioaren oztopo nagusia, beste behin ere, epaileen interpretazioa izango da.

ITURRIA: Norberak egina, El Diario Vasco egunkaritik moldatua

4.6. HAUSNARKETA PERTSONALA

Taula horretan argi ikusten da gai honek gizartearengan eta bereziki gipuzkoarrengan duen eragina. Prentsa idatzian urtebetean hainbeste lerroburu eta artikulu argitaratuta ikusteak, zer pentsa handia ematen du herritarrengan duen interesaz eta garrantziaz.

Informazioa lortzeko zailtasunak direla medio, denboraldi batean esperoan egon nintzen eskaeren erantzuna positiboa izango zelakoan. Bide guztietatik saiatu arren, ezin izan nuen nire hasierako planteamenduarekin aurrera jarraitu.

Foru Aldundiaren aldetik, epaiketaren afera izan zen Aintzane Oiarbiderekin eduki nahi nuen elkarrizketa galarazteko arrazoia. Epaiketa baten erdian, ez zitzaion iruditzen honelako ekimen batean parte hartzeko momentua zenik. Gauzak horrela, hein handi batean, ulertu nuen erantzuna, ez ordea erabilitako moduak eta jarrera.

Egoera horretan, zentzugabetzat ikusi nuen gatazka honen beste aldeari, hau da, hasiera batean pentsatu moduan, errepide bidezko garraiolarien elkarteren bati edota kamioilari batzuei elkarrizketa eskatzeko ideia. Alde baten faltan, beste aldearen iritzia jakitea alferrikakoa iruditu zitzaidan, ez bainuen konparatzeko ezer. Gainera, lana desorekatuta geratuko zenaren irudipena nuen, eta ez nuen alderdi interesatuetako baten alde gehiago posizionatu nahi. Hortaz, bi alderdi hauen ikuspuntuak prentsako nahiz web orrialdeetako artikuluen bidez osatzen saiatu naiz, baina betiere lanaren eduki gehigarri moduan, inola ere ez helburu nagusi gisa.

Bidegiren aldetik, aldiz, arazoak bestelakoak izan ziren. Antza denez, ez dute garbi noren ardura den era honetako informazioa ematea, ezta ere zenbaterainoko informazio eman dezaketen. Enpresa publiko honetara, gehienbat, Gipuzkoako errepide sarea kudeatzen eta mantentzen duen enpresaren informazio korporatiboa lortzeko jakinminagatik jo nuen. Nire asmoa, hasiera batean, Bidegiren 2018. urteko memoriatik lan hau osatzen lagunduko zidaten zenbait gai aztertzea zen, hala nola, erakundearen aurkezpena, antolaketa, kompetentziak, burutzen dituen ekintzak eta abar. Telefono, web orri eta posta elektronikoko bidez ezer lortu ez, eta pertsonalki Aritzeta eta Zarautzeko zentruetara joan ostean, bide guztiak agortu nituela sentitu nuen, inongo erantzun positibotik gabe.

Beraz, zentzu honetan ere hasierako planteamenduari dagokionez, moldaketa batzuk egin beharrean aurkitu nintzen. Hasierako asmoa, Bidegiren informazio korporatiboaren bidez, erakundearen azterketa sakon bat egitea zen, herritar guztien eskura dagoen oinarritzko informazioaz haratago. Horrez gain, Euskadiko beste probintzietan errepideak kudeatzen dituzten erakundeen azaleko azterketa eta konparaketa txiki bat egin nahi nuen. Bidegiri buruz nahi bezalako informazioa topatzerik lortu ez dudanez eta sakonago aztertzeko aukerarik egon ez denez, atal hau modu laburtuagoan landu dut.

Bi erakunde publiko hauen informazioa ezinbestekotzat jotzen nuen hasiera batean nire lanaren helburuak betetzeko eta proiektuari eman nahi nion “hausnarketa kritiko” itxura modu sakonagoan garatzeko. Hala ere, zailtasunak zailtasun, aurrera egin beharrean aurkitu nintzen, lortu ezin zen informazioa alde batera utzi eta lanaren helburuei dagokienean moldaketa batzuk eginez.

Zentzu horretan, gai honen aditu edota gaiaren gaurkotasuna gertutik jarraitzen duen norbaiten bila hasi nintzen, laguntza moduan. Gatazka hau oso berria denez, martxan egon den urtebete honetaz aparte, oso gutxi idatzi da gai honen inguruan, eta hare gutxiago euskaraz. Gizartean ezjakintasun handia dago eta orokorrean jende gutxi ulertzen du Europan hain ohikoak diren tarifakzio sistemai buruz.

AT sistema ezartzen Espainiako lehenengo probintzia Gipuzkoa izan denez, jendearen ikusmina, kritika eta komunikabideetan izaten ari den oihartzuna aipatzekoak dira, zalantzarik gabe. Aitzindari izateak dakartzan ondorio asko ari dira pairatzen bi alde interesatuak, eta ziurrenik biek edukiko dituzte berea defendatzeko nahikoa arrazoi sendo. Epaiketa bat tarteko duen eta Gipuzkoako herritarren sektore nagusietako bati zuzenean eragiten dion gatazka batek, beti dauka bere mamia.

Hori horrela, azken urte honetan zehar “El Diario Vasco”-ko artikuluak irakurtzen eta biltzen joan naiz, gatazkaren bilakaera gertutik eta modu kronologiko batean jarraitzeko asmoz. Bide azpiegituren gaia gertutik jarraitzen du Gaizka Lasak, eta bera izan da gai honi buruzko artikuluak hamaika bider idatzi dituen kazetaria.

Aurretik aipatu dudan egunkarian udan praktikan egon zen lagun baten bidez, berarekin kontaktuan jartzea lortu nuen, lehen aipatu moduan, gaiaren gaurkotasuna gertutik jarraitzen duen norbaiten laguntza egokia izan zitekeela iruditu zitzaidalako. Bere jarrera eta laguntzeko borondatea hasiera hasieratik oso positiboak izan ziren, eta 2017. urtearen amaieratik hona, gai honi buruz idatzi dituen artikulu guztiak bidali zizkidan, formatu digitalean. Horrez gain, edozein kontsulta edo zalantza argitzeko bere prestutasuna edukiko nuela jakiteak lasaitasuna eta motibazioa eman zidan, lanarekin nire kabuz aurrera jarraitzeko eta pixkanaka landa-lana ixten joateko.

Gradu Amaierako Lana, hein handi batean ikerketa lan bat denez, bi erakunde publiko (Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bidegi) ezberdin hauekin honelako esperientziak izateak zer pentsatu handia eman dit, eta hainbat hausnarketa egiteko tartea izan dut. Besteak beste, konklusio nabarmen batetara iritsi naiz erakunde publiko eta pribatuekiko nuen ikuspuntu edo ustearen inguruan.

Lanarekin hasi nintzenean, ez nuen uste hain zaila izango zenik erakunde publikoetara jotzea eta beharrezko informazioa lortzea. Erakunde publiko izate horrek eman beharko lukeen transparentzia osoaz haratago, trabak jarri eta informazio interesatua soilik azaleratzen dutela konturatu naiz. Nire ustez, erakunde publiko baten oinarritzko eginbeharretako bat, herritarren beharrei eta eskaerei erantzutea da, modu zilegi batean, kontuan harturik eskatutako informazioa erabat publikoa zela.

Bestalde, harritu egin nau, zentzu onean, enpresa pribatu baten (kasu honetan, “El Diario Vasco”) informazio basera sartzeko erraztasunak eta nire eskaerari erantzuteko azkartasunak. Enpresa pribatua izanik, ez zuen zertan eman bere garaian argitaratutako informazio bat. Hala ere, inolako interesik eta irabazi asmorik gabe, bertako kazetariaren inplikazioa erabatekoa izan da, eta behar izan dudan guztian laguntzeko prest azaldu da hasieratik.

5. ONDORIOAK

5.1. ETORKIZUNERAKO BESTE APLIKAZIO EREMU BATZUK

Gipuzkoako bide korapilatsu honetan murgildurik, etorkizunerako soluzio edo aukera posibleak bilatzean dago hurrengo urratsa. Lan honen helburu nagusia, AT sistemaren auzia modu sakonean azertu eta Europako egoera ezagutu ondoren, hausnarketa kritiko bat egitea da. Behin atal honetara iritsita, esan dezaket lanaren prozesu guztian zehar nire iritzi propioa garatzen joan naizela, betiere inoren alde zehazki posizionatu gabe, bi aldeen iritzi eta hausnarketak entzunaz. Denbora honetan ikasitakoak eta landutakoak, bide eman dit zenbait konklusiotara heldu ahal izateko.

Hasteko, etorkizunera begira, bai erakunde publikoek, bai garraiolarien sektoreak, elkar ulertzeko urratsak eman beharko lituzketela iruditzen zait. Gipuzkoa bezalako lurralde txiki batean, non errepideko merkantzien garraioak hainbesteko garrantzia duen, gertutasun handiagoa eta adostasun edota akordioetara heltzeko borondate handiagoa egon beharko luke. Bi aldeen onura bilatu beharko litzateke, izan ere, alde horietako bat kaltetzeak, bestearen onura ekarri beharrean, Gipuzkoa eta gipuzkoar guztientzako kaltea dakar.

Europar Batasunak bere parte diren lurraldeetan ezarri nahi duen filosofia egokia iruditzen zait bere oinarrian eta planteamenduan. Nire ustez, errepideak erabiltzen dituenak ordaindu behar ditu, eta erabiltzen duen neurriko aportazioa egin behar du errepide horien mantenua eta hobekuntzak aurrera eramateko.

Hala ere, kontutan hartu behar da garraiolari atzerritarra ezin dela diskriminatu bertakoen mesedetan. Zentzu horretan, legeak dioena jarraitzeaz gain, nire ustez deskontuak aplikatu beharko lirateke erabileraren arabera. Hori litzateke, diskriminazioan ez erortzeko eta tokiko garraiolariak ahalik eta gutxien kaltetzeko biderik egokiena. Eurobinetaren Europako Zuzentarauaren arabera, erabileraren araberrako deskontuak ezartzeko aukera onartua dago, hau da, legezkoa da.

Horrez gain, alderdi politikoen jarrerari eta jokabideari erreparatuz, nire ustez Alderdi Jeltzaleak foru arau berria osatu duenean, Maiatzeko hauteskundeak lehenetsi ditu, herritarren interesen gainera. Foru arau zaharra epaitegietan egonik eta oraindik behin betiko epairik edo sententziarik jaso gabe, presaka eta gainerako alderdi politikoekin kontsultatu gabe osatu dute foru arau berria.

Kanpotik ikusita, badirudi informazioa gordetzen edo akatsak ezkututzen ariko balira bezala jokatu dutela. Esan beharrik ez dago, EAJ/PNV-ren norabide hau behin betiko epaia aurkakoa izatearen beldurrarengatik dela neurri handi batean. Modu honetan, hipotesirik txarrenak beteta ere, alternatiba sendo eta azkar bat edukiko dute mahai azpian.

Horrez gain, badirudi Aldundiak ez duela zentzuz jokatu justiziak behin-behinekoki ezerezean utzitako foru arau batekin aurrera jarraitzen eta garraiolariei denbora honetan zehar kobratzen. Behin betiko sententziaren faltan, bidesariarekin aurrera

jarraitzea legez zilegi den arren, ez zait egokia iruditzen denbora horretan dirua biltzen jarraitzea. Epaitegietatik aurkako erantzun bat iritsiko balitz, Aldundia bildutako diru guztia itzuli beharrarekin aurki daiteke.

Ulertzekoa da, ustekabeko urte korapilatsu eta gorabeheratsu honen ondoren, eta hare gehiago hauteskundeak hain gertu izanik, beraien agintaldi honetako proiektu estrategikorik garrantzitsuenaren etorkizuna bermatuta utzi nahi izatea. Hala ere, nire iritziz egokiena erabakia denbora gehiagorekin eta Gobernuaren iritziz bateratuagoarekin hartzea izango litzatekeen. Ez dugu ahaztu behar, honen guztiaren atzean interes politikoa dagoela, sarritan herritarren eta gizartearen interesen aurretik ipintzen dena.

